



ARGIA

NOLA ALTXATU BIZITZEKO HIRIAK




» PREKARIETATEA: IDAZLE GAZTEA BERE BAKARDADEAN

» XABIER LANDABIDEA: "TELEBISTA NORMATIBOAREKIN SUFRITZEN DUT, BATEZ ERE ETB-REKIN"



Alta Porru

Eraman etxera **Jakoba Errekondoren** jakintza
puntako **8 marrazkilari** hauek umorez komiki bihurtuta




ANTON OLARIAGA



JOSEBA LARRATXE



ZALDIEROA



UNAI ITURRAGA

BARATZEA MUNDU ASKOTARAKO ATARIA DA:
GURE KULTURAREN OINARRIA DEN LURRA
LANTZEAREKIN BATERA JORRATZEN DITUGU
INGURUMENA, HIZKUNTZA, SEXUA,
ELIKADURA, UMOREA, EKONOMIA...




UNAI GAZTELUMENDI



AINARA AZPIAZU "AKPT"



"MATTIN" MARTIARENA



ASISKO



EROSI 101 ORRIKO
KOMIKI LIBURUA KOLORETAN

19'50€

18€

harpidedunentzat

ANTOLATU KOMIKHITZALDIA ZURE HERRIAN

Landareen inguruko gaiak
azaltzen ditugun bitartean,
komikiak sortuko ditugu,
zuzenean!

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

edukia@bizibaratzea.eus



 **ARGIA**
argia.eus

**BIZI
BARATZEA**
bizibaratzea.eus

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Haitiko hondamendiaren gakoak

IRITZIAK

- 17 June Fernández
- 18 Xabier Mendiguren
- 19 Jose Inazio Basterretxea Itxaro Borda



Zer-nolako harremana dugu telebistarekin? Galdera horri erantzuteko hainbat gako eman digu Xabier Landabidea ikertzaile bilbotarrak. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 36 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGi-KONTA: MONTSERRAT CARULLA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO MARRAZKIA: JOSEBA LARRATXE

SAKONEAN

- 12 | Xabier Landabidea, telebista ohituren ikertzailea / Danele Sarriugarte Mochales
- 20 | Hiriak birpentsatzen / Mikel Garcia Idiakez
- 26 | Basalandareak: Zapaltzen duguna ere jangarria da / Irati Sarasua Arabaolaza
- 30 | Galdric Peñarroja ANCKo kidearekin hizketan / Axier Lopez
- 34 | Egia Euskaraz eta gero, Hernani eta Lasarte-Oriaren txanda / Onintza Irureta Azkune
- 42 | Idazletza eta prekarietatea: Toki pixka bat idazle gehiagorentzat / Kepa Matxain
- 45 | 80 urte geroago, nola egiten dugu bertsotan? / Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 46 | Xilaba txapelketa: Hamabortz gazte / Xan Alkhat

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Ainhoa Ortega, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iosu Alberdi, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.

Produktzioa: Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Llorente, Marijo Aiertza.

Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.

Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Gau Beltza ospatzen dugu, multinazionalek erabaki aurretik ere

Gertukoa ez ezagutzea edo gutxiestea eta kanpotik datozen kultura, historia eta ohitura erauntsia kopiatzea da globalizazio kapitalistaren ezaugarri nagusia. Kosmopolita eta modernoa omen. AEBetako industria zinematografikoaren eskutik, Halloween gurera heldu baino askoz lehenago ospatu izan da "Gau Beltza". Orain gutxira arte, Domu Santu egunari lotuta, Euskal Herriko txoko askotan ospatu da "Arimen Gaua". Kalabazak edo arbiak baratzetatik lapurtu, hustu eta begiko zuloak egin ostean, barruan kandelak jartzen zizkieten ume eta gazteek, etxeko trapu zaharrekin mozorrotuta, herritarrak beldurtzeko. Orain, aldiz, produktu bilakatutako jai guztietan bezala, Halloween gauerako osagai guztiak erosi egiten dira. Alderdi kontsumista hori gaingitu eta lehengo ospakizun herrikoia berreskuratzeko asmoz esperientzia batzuk agertu dira han-hemenka. Horietako bat da Oiartzungo Gau Beltza.

Argazkia: Ekaitz Zilarmendi





“Ezikusiak: Bilbo, Albia eraikina obretan, sabai-leiho, 10 metroko erorikoa. Hor bukatu da langile baten bizitza, 41 urte, azpikontratatua”

@iaiestaran



“Asko pentsatu ondoren, #Sarrionandia Kuban agertuko da eta ez Durangoko Azokan, atzeratuta dauzkan liburu sinaketez eskakeatzeko”

@magunazelai



“Politika ekonomiko legal bakar gisa neoliberalismoa inposatu nahi dute eta demokrazia eta herrien burujabetza ezabatu #EzTTIPezCETA”

@iakerkasanova



“Begira zer gertatu zaizun zuri, imajinatu futbolariok armairutik aterako bagina!”

Andrés Iniestak Jesús Tomillero arbitro homosexualari



EAJren abstentzioa, Aznarrek Irakeko gerran izaniko ardura ez ikertzeko gako

Iosu Alberdi Atxurra

@atxurraa

2003an hasitako Irakeko gerran José María Aznarren Gobernuak izan zuen papera ikertzeko batzordea eratzea ez da aurrera atera Espainiako Kongresuan. ERCK eta PSOEk bultzatuko ikerketa-eskaerak ez zuen aurrera egin, PP eta Ciudadanosen ezezkoekin, boto berdinketa eman zelako. EAJ abstenitu egin zen, Aitor Esteban azalpenik eman gabe ez baitzen saiora agertu.

ERCK Kanpo Gaien Batzordean babesturiko eskaeraren helburua Espainiako Estatuak Irakeko gerran izaniko papera, eginiko gastu militarrek eta mugitutako tropak zenbat izan ziren argitzea da. Hiru aldiz bozkatu zuten proposamena, hiruetan hemezortzina berdinduz: ERC, PSOE, Podemos eta PDC

alderdiek alde eta PP, Ciudadanos eta UPNk aurka. Aldekoek EAJren babesa espero zuten, baina esan bezala Esteban ez zen agertu, *El Punt Avui* bere webgunean azaldu duenez.

Britainia Handian, bertako Gobernuak izandako papera aztertu zuten Chilcot txostenean, eta ikerketa kaleratzearekin batera orduko lehen ministro Toni Blairrek barkamena eskatu zuen “esaniko gezurrengatik eta tropen jokaerarengatik”.

ERCK defendatu du Aznarrek ere barkamena eskatu beharko lukeela gerra justifikatzeko esandako gezurrengatik. Irak suntsipen handiko armen jabe izatearekin arrazoitu zuen inbasioa garai hartako presidente espainiarrak, baina inoiz ez da halakorik egiaztatu. Gudak milioi erdi eta milioi bat heriotza inguru eragin eta milaka pertsona desplazatzera behartu zituen.

“Gu bakearen logikan ari gara, eta Espainiako Gobernuak aldiz gerraren logikan”

ALBERTO SPEKTOROWSKI, BAKERAKO NAZIOARTEKO BITARTEKARIA

Azkainen Mikel Irastorza ETako ustezko kidea atxilotzearen atzean “mezu argia” ikusten du Spektorowskik: “ETAri esan nahi diote, ‘guk ez dugu negoziatzen eta gainera suntsitu egingo zaituztegu’. Espainiako Gobernuarentzat, euskaldunen edozein bake eskaera atzerapausoa da eta armagabetearen edo balizko negoziazio baten bidean oztupoak jartzen saiatuko dira”.

PUBLICO.ES (2016-11-05)



EKONOMIAN, ENPRESA handiak
JIPOITU egiten du ENPRESA
FAMILIARRA, eta NORMALA omen da

KIROLEAN, EKIPO ahaltsuak
ZAFRATZEN du EKIPO ahula,
eta KIROLTASUNEZ hARTZEN da

GEOPOLITIKAN, herri boteretsuak
ZANPATU egiten du Herri Txipia
" eta INORK ez dio KARGU hARTZEN

ESPLIKATUKO didazue ORDUAN
ZERGATIK ezin diodan NIK
PANPALDI ON BAT JO EMATEARI



CK



Erabakia mantenduz gero, Udalarekin harremanak apurtu behar izango dituela adierazi du Arabako Enpresariak erakundearen lehendakariak.

ARABAKO ALEA

Arabako patronala kexu eta mehatxuka, Gasteizko zerga igoera dela-eta

Arabako Alea

@ArabakoALEA

SEA Arabako enpresariak erakundeak gogor kritikatu du Gasteizko Udalak Ekonomia Jardueraren Zerga (EJZ) %1,93 igotzeko hartu duen erabakia. Arabako Enpresariak erakundearen lehendakari Pascal Gomezek egindako agerraldian Udalarekin harremanak apurtzeko mehatxua egin du, 2015ean EAJ, PP eta PSE udal taldeekin sinatu zuen akordioa betetzen ez bada.

Akordio horrek 2015-2016-2017 hirurtekoan EJZ-ren koefizientearen zenbatekoa zehazten zuen eta orain Udalak onartu duen hitzarmena "gure erakundearen kaudimena eta sinesgarritasun ekonomikoaren aurkako eraso" dela uste du SEAk.

Pasa den urriaren 28an Udal Gobernuak EH Bildu eta Irabazirekin adostu zuen moduan, hurrengo ekitaldian milioi bat eurotik gora fakturatzen duten enpresek ere ordaindu behar izango dute zerga hau; orain arte, fakturazio-muga bi milioi eurotan zegoen. Horrez gain, zerga kalkulatzeko koefizientea igotzea adostu dute; 1,14tik 1,93ra.

Neurri horren eraginez, "500 lan-postu galduko dira eta 3.000 enpresari eragingo die", ohartarazi du Gomezek. Aurretik adostutako akordioa bete ezean, Udalarekin harremanak apurtu behar izango dituela adierazi du Arabako Enpresariak erakundearen lehendakariak.

Gehien duenak gehiago ordaintzea

Udal Gobernuaren irakurketaren arabera, ordea, neurri horri esker, 2017 urtean 5 milioi euro gehiago bilduko ditu Udalak eta aldaketa, guztira, 800 enpresari eragingo dio. Zehazki, EH Bilduk eta Irabazik aurkeztu zuten zuzenketa da, eta EAJ eta PSE-EEren babesarekin eta Podemosen abstentzioarekin aurrera atera zena. "Akordio honekin, guztiaren gainetik herritarren interesa jartzen dugu, udal kutxei eragiten dien 20 milioi euroko egiturazko defizita zuzentzeko neurriak eskatzen baitizkigute", adierazi zuen urriaren Ogasuneko zinegotzi Itziar Gonzalok. Aldi berean, EH Bilduko bozeramaile Miren Larrionek azpimarratu zuenez, "gehien duenak gehiago ordainduko du".

EKONOMIAREN TALAIAN

Europako lan legedia bete



Juan Mari Arregi

Legearen defendatzaile diren ohiko gobernuek, izan estatalak izan autonomikoak, euren legeak betetzen ez direnean oihu egin eta hura hautsi duten herritarrak zigortu edo espetxeratzen dituzte. Patronalak gauza bera. Baina gobernu eta administrazioa horiek, aitzakiak eta zirriki-tuak bilatzen dituzte eurei eragiten dieten legeak ez betetzeko. Europako lan legediak behin-behineko langileen inguruan esandakoa da horren adibide. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiren epai batek erabaki berri du lan baldintzak berdinak izan behar direla, kontratu mota dena dela ere, eta indemnizazio bera jasotzeko eskubidea dutela. Europar auzitegiak, ondorioz, behin-behineko eta behin betiko kontratuak berdindu egin ditu.

Legedi hori enpresa pribatuan eta publikoan ezarri behar da. Eta badakigu administrazio publikoan -Euskal Herrikoan ere bai- behin-behineko eta bitarteko langile asko dagola: %4 izan daitekeela uste da, batez ere Osakidetzan eta hezkuntzan. Egia da zenbait kasutan behin-behinekotasuna ezin dela saihestu, baja edo oporrenetatik sortzen diren ordezkapenak direlako. Baina bistakoa da administrazioak egiturazko postu asko ere -iraunkorrek izan behar luketenak- betetzen dituela aldi baterako kontratazioarekin.

Normala eta bidezkoa da behin-behineko eta bitarteko langileek, enpresa publiko nahiz pribatukoek, europar legedia bete dadila eskatzea. Beraien eskubidea da. Administrazio publikoek, legedia aplikatzeaz gain, etorkizuneko enplegu publikoa proiektatzerakoan kontuan eduki behar lukete hori. Behin-behineko kontratazioak amaitu behar dira. Kalitatezko enplegua, hauteskunde kanpainen denen ahotan egon dena, hori ere bada.



EKAITZ ZILARMENDI

8.000 lagunetik gora erabakitze eskubidearen alde

OARSOALDEA. Azaroaren 6an 8.000 lagunetik gora elkartu ziren, Lezo, Oiartzun eta Errenteriatik igarota, Pasai San Pedro eta Pasai Donibane lotu zituen giza katean. Demoarso talde eragileak antolaturiko ekitaldiak 8,5 kilometro hartu zituen, 2017ko martxoaren 19an Oarsoaldean egingo duten galdeketa animatzeko. “Guk, gutariko bakoitzak, gure eskuekin, denon eskuekin erabaki behar dugu gure etorkizuna”, adierazi zuten hitza hartu zutenek. Oiartzualdekoak ez dira izango datorren udaberrian galdeketa egingo duten bakarrik. Busturialdea eta Urola Kostako hainbat herri ere asmo bera aurreratu dute.

Nafarroa osoan seinaleak ele bitan jarriko ditu Gobernuak

Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Eremu ez-euskaldunean ere sarbideetako errepide kartelak euskaraz eta gaztelaniaz jarriko ditu Nafarroako Gobernuak.

UPNren erabaki hura

2006. urtetik, UPN agintean zegoen garaiko erabakia-
ren ondorioz, eremu euskaldunean eta mistoan Nafarroa sarrerako kartelak ele bitan daude eta eremu ez-euskaldunean gaztelaniaz soilik.

67 dira seinaleak

17 eremu euskaldunean daude, denak ele bitan; 5 eremu mistoan, bat gaztelaniaz eta 4 ele bitan; 45 eremu ez-euskaldunean, 44 gaztelaniaz eta bat euskaraz eta gaztelaniaz. Beraz, 45 kartel aldatu beharko dira.

Bi dekretu egitasmo

Euskarabidea bi dekretu egitasmo ari da lantzen gai honen harira. Batekin errepideetako seinaleetika euskaraz eta gaztelaniaz ipintzea arautuko du, eta bestearekin leku izen ofizialak arautuko ditu.

HAUTESKUNDEAK


5,3

milioi herritarrek ez dute AEBetako hauteskundeetan parte hartu ahal izan, horretarako nahitaezkoa delako AEBetako biztanle izatea, buru-ahalten osoa izatea eta aurretik delitirik egin ez izana.

51

bat milioi herritar (biztanleen %24) ez dago erregistratuta; bozkatzeko baldintza beharrezkoa AEBetan.



NDIAYE KASUA

Nafarroako Parlamentuko mahaia hala eskatu badio ere, Carmen Alba Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak ez du agerraldirik egingo, Iruñeko polizia-etxean hildako Elhdaji Ndiaye-ren heriotza argitzeko.



SEXU ERASOA... BERRIZ ERE

Urriaren 31n Leioako emakume batek jasandako sexu erasoa salatzeke elkarretaratze jendetsua egin zuten ehunka pertsonak. Karguekin aske utzi dute erasoa egitea egotzita atxilotutako gizona.



ESTELADARENGATIK ATXILOTUA

Bergako (Herrialde Katalanak) alkate Montse Venturós (CUP) atxilotu eta egunean bertan libre utzi dute Mossoek, hauteskundeetan udaletxeko balkoitik 'estelada' kentzeko aginduari men ez egiteagatik. Ohartarazi diote berriro agindu judizialen bat desobedituz gero, atxilotu dezaketela.

'Matthew' urakanak ez, beste norbaitek hil ditu 900 herritar Haitin



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Matthew urakanak Haiti jo zuen urriaren 4an, Ameriketako herrialderik txiroenaren mendebaldean sekulako txikizioak eraginez. Hilabete geroago, ia 900 hildako zeuden kontabilizatuta, eta kolera izurritea zabaltzen ari zen hiri eta baserrietan barrena. Hondamendi naturala aipatu den arren, Haitiko ezbehar berri hau da ehunka urteko desastre politiko, ekologiko eta sozialek eragin eta larriagotutako katastrofea.



2007an bereak eta bi egin zituen Felix urakanaz geroztik Matthew izan da Karibea astindu duen 5. mailako lehenbiziko zikloi tropikala. Kolonbian hildako bat utzi du, 4 Errepublika dominikarrean, 49 AEBetan... bakar bat ere ez mota guztietako krisiei aurre egiten eredugarri den Kuban. Haitin hildakoen kopurua ia 900era iritsia zen azaroaren hasieran, baina zenbait adituk 1.500 edo gehiago izan direla uste du. Estatistiketarako betarik ez dauka Ameriketako herrialderik txiroenean munduko gizarterik zanpatuenetakoa kudeatzen duen sasi-estatuak.

Haiti ekaitz erraldoiak harrapatu du oraindik burua jaso ezinik zebilenean 2010eko lurrikaratik. Urtarrilaren 24 hartan Richter eskalako 7. mailako astinduak sekulako triskantza eragin zuen, iturri batzuen arabera 100.000 eta 160.000 artean hildako, Port-au-Princeko gobernuaren kopuruetan 300.000tik gora hamar milioi eta erdiko populazio batean. Hondamendi bakoitza da Apokalipsia hemen.

"Baina gertatua ez da naturala izan", idatzi du Laura Wagner antropologo iparramerikarrak. "Hemen hondamendien sustraiak daude faktore sozioekonomikoetan eta bortizkerian ['slow violence'], hondamendien kalteak izugarri nozitzen dituzte hirietako txabolategi mukuru betetako zein urrun bakartutako herrixketako jende txiro baztertuek. Matthew urakana bezala 2010eko lurrikara dira Laurent Dubois historialari

haitiarrak *aftershocks of history* deitzen dituenak, mendeetako gertakizun politiko, ekologiko eta sozialek eragindako oihartzunak".

Wagnerrek antropologiako tesia Haitin egin zuen, 2010eko lurrikararen eraginetan ikertuz. Orduan hiriburua eta inguruak birrindu zituen katastrofeak, izuak eta goseak eraginda milaka haitiar eramanaz Tiburon lur muturrera eta bereziki Grand'Anse eskualde naturaz aberatsera. Oraingoan alderantziz gertatu da eta gaur Port-au-Princera ikasketetara edo lan bila joandako herritarrak dira Grand'Anseko familien berririk gabe geratu direnak.

Askorik aipatzen ez den arren, Haitiren antolaketa hiper-zentralizatuak areagotzen ditu kalteak. Lurrikarak txirtxilatatu zuen hiru milioi biztanletik gora -herrialdearen herena- *bidonville* txabolategietan pilatzen dituen hiriburua. Orain urakanaren azioak are gaiztoago gertatu dira mendebaldeko sarrera-irteerak arras kaxkarrak direlako. Argindarrik gabe, uholdeek zubiak eramanik, kaltetutako populazioak isolaturik geratu dira aste luzez.

XVIII. mendean Frantziak munduko nekazaritza instalazio emankorre-na bihurtu zuen Haiti, milaka jenderen esklabotzan oinarrituta. Haiek ezarritako eredu zentralista, hiritarrak eta baserritar morroiak erabat bereizten zituena, gaurdaino heldu da, administratzaile bakoitzak -AEB okupatzaileek 1915-1931 epean, Duvalier diktadore

neokolonialek geroztik...- okerragotu du lurraldearen antolaketa buru gabea. Matthewk milaka herritar gehiago eramango ditu bortxaz Port-au-Prince-ra, han direlako nazioarteko indarrek eta GKEk banatzen dituzten laguntza gehienak.

Lagun batek idatzi dio Wagnerri Haititik esanez irratian norbaiti entzun diola ekaitz hau gaiztoagoa izan dela duela sei urteko terremotoa baino. "Harritu ninduen, ezin baitira alderatu orduko eta oraingo biktimen kopuruak. Gero ohar-tu naiz, ordea, nazio osoa elikatzen duen mendebaldea birrindu duela Matthewk, zuhaitz bakar bat ez duela zutik utzi, sor-roetako uzta guztiak desegin dituela, eta agian arrazoi zuela".

Bakegileak eta gosetearen industria

Urriak aurrera egin ahala, Haitik hedabide nagusietara iritsitako irudiak aberastuz joan dira, alde batetik laguntzaz betetako hegazkinak iristen mundu osotik, bestetik kolera izurriteak hildakoen lehenbiziko albisteak.

Baina kasu kolerarekin, dio Wagnerrek. "Ez duzu pentsatu behar hondamendiak automatikoki dakarrela kolera. Izurriterik ezin da gertatu koleraren bakteriorik ez den lekuan, denik eta txiroena izanda ere, eta Haitik ez zuen kolera Nazio Batuen Erakundeak bake misioz bidalitako militarrek zabaltu zuten arte 2010ean". Hilabete gutxitan 9.000 jende hil eta milioi erdi gehiago gaixotu ziren, ustez haitiarrei laguntze-



Hector Retamalen argazkian, emakumea Matthew urakanak birrindu arte bere etxe izandakoaren atarian, Grand'Anseko hiriburu Jeremien. Ondo begiratzuz gero, matxarro gainean ur pittin bat berotzen ari da bi egur muturren sutan. Haitiko hamar biztanletik zortzi txirotasunean bizi da, gutxieneko legezko soldata egunean 4,5 dolarrekoa da. Egoera ez dute nazioarteko laguntza programek konpondu: gehienak GKEk kudeatzen dituzte Haitiko gobernuaren kontrolik gabe eta gehiago balio dute AEBetako nekazaritza industrialaren soberakinak ekartzeko bertako produkzioa sustatzeko baino.

ra NBEaren MINUSTAH operatiboan iritsitako militar nepaldarrek sarturik.

Fabrizio Lorusso kazetariak, *"Haiti, gosetearen industria"* liburuaren egi-leak, *La Jornada* egunkari mexikarrean geopolitikan eta historian kokatu ditu herrialde honen malurrak: *"El vudú neo-colonial contra Haití"*. Munduko lehen errepublika beltz eta esklabotzarik gabekoa izana baita Haiti, 1804an Napoleon Bonaparteren Frantziari independentzia irabazita.

Geroztik potentzia handiek sistematikoki ebaki dizkiote hegala. Frantziak 1825ean kolonoek bertan utzitako ondasun eta esklaboen kalte-ordaintzat 150 milioi franko urrezko pagatzea eskatu zion Haitiri eta beste potentzia handiekin batera blokeoa ezarri. Pagakizunek 125 urte iraun zuten. Tartean, 1914an AEBetako soldaduek inbaditu

zuten Haiti, gerra mundialaren aitzakian; bertan geratuko ziren 1935a arte.

1950eko hamarkadan hasi zen Duvalier tarren agintea, François Papa Doc lehenbizi, haren seme Jean-Claude Bébé Doc gero 1986 arte. Terrorezko istoriorik nahi duenak, aski du haien borrero eskuadrak ziren Tonton Macouteen balentriak irakurtzea. Duvalier Parisen hil zen bake ederrean 2011n. Aldiz, herri-tarren botoz hautatutako Jean-Bertrand Aristide teologo ezkertiarra bi aldiz kendu zuten militarrek bortxaz, 1991n eta 2004an. Bigarrenean bidali zituen Nazio Batuen Erakundeak tropa bakegileak, eskuinak agintea benetan galtzen duen aldi oro ongi antolatu ohi duen kaosa harturik estakuru.

"Haitiren zorigaitza askoz gehiago dago lotua geopolitika eta ekonomia-ekin, naturaren apetekin baino", ida-

tzi du Lorusok. 2010ean Bill Clintonek publikoki eskatu zuen barkamena bera agintean egondako urteetan Haiti derriortu zuelako AEBei arroza erostera. AEBek diruz lagunduta bere nekazaritza industrial babesten zuen bitartean, baserritar haitiar asko hondoratu eta txabolategietara emigratzera behartu zituen. Baina Clintonen hitzek ez dute aparteko alaketarik ekarri; aldiz, haitiarrek beren elikatzeko moduak aldatu dituzte bortxaz.

Herrialdea konponbiderik gabeko txirotasunean hondoratuta, 10.000 GKEk kudeatzen dituzte nazioarteko laguntza humanitarioak. Laura Wagner, hondamendietako antropologoa: "AEBetako eta Frantziako leku asko aberats eta indartsuak dira Haiti bezalako beste asko txiro eta ahulak direlako. Gu hemen gaude haiek han daudelako". ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Xabier Landabidea, telebista ohituren ikertzailea

«Susmoa dut gure aukeren azpitik jokatzeko ari garela, herri bezala eta norbanako bezala»

Txinan, norbait gorroto baduzu, garai interesgarriak bizi ditzala opatzen diozu. Garai zailak, alegia. Komunikazioaren arloan dabil Xabier Landabidea, ikertzen eta saltsan, eta badaki halako sasoi batean gaudela gu, sasoi ezinezko batean. Hala ere, etsipenik ez du sentitzen; aitzitik, parte hartzeko, gauzak probatzeko eta jendearekin egoteko urrezko aroa iruditzen zaio.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zenbat saltsatan sartuta zaude?

Gaur egun oso zaila da gauzak bereiztea... Ikerlaria eta irakaslea naiz unibertsitatean, baina, gero, irrati libre batean hartzen dut parte. Printzipioz, bi gauza horiek ez daukate zerikusirik, baina, gero, lanetik ezagutzen duzun norbait eramaten duzu irratiara, edo alderantziz. Orduan, neuk ere ez dakit zenbat saltsatan nabilen, baina oso pozik nago gaur egun egin daitezkeen gauza guztiekin nagoen lekuan.

Gauza konkretu batetik abiatuko gara orduan. Telebistari buruzko doktore-tesia egin duzu.

Ikus-entzunezkoen komunikazioa ikasi nuen EHUn. Gero master bat egin nuen komunikazioarekin lotuta eta doktoregoa egiteko aukera sortu zitzaidan Deustun, Aisiatzeko Ikaskuntzen Institutuan. Gaia aukeratzeko, nire obsezioarekin jarraitu nuen, iruditzen zaidalako gaur egun gure aisia egituratzeko moldeei buruz hitz egiten badugu, ezinbestean hitz egin behar dugula komunikabideei buruz, eta komunikabideei buruz hitz egiterakoan, erdigunean da-

goela telebista. Duela 7-8 urte hasi nintzen eta oso momentu interesgarria zen, telebista zalantzan zegoelako: internet zetorren, mugak lausotzen ari ziren, eta guk sumatzen genuen aldaketak gertatuko zirela. Aldi berean, hortxe jarraitzen zuen telebistak, familiak bezala, gizarte-instituzio nagusi.

Zer jakin nahi zenuen, zehazki?

Halako ikuspegi antropologiko batetik, interesatzen zitzaidan jendeari galde-tzea oso gauza erraz bat: zer da telebista zuretzat? Hartu nituen Bizkaiko leku eta bizitza-garai oso ezberdinetan zeuden pertsonak, taldetan batu, eta halako galdera tontoak egiten hasi nintzen. Mundu guztiak daki zer den telebista, sukaldean edo egongelan dagoen zera hori, baina juntatzen dituzu 7-8 lagun, eta taldean berehala berotzen garenez, gure iritzia eman nahi dugu eta segituan pizten dira eztabaidak.

Ikuspegi antropologikoa aipatu duzu. Zer -nolako marko teorikoren arabera ikertu zenuen?

Niri garai hartan asko interesatzen zi-

tzaidan *grounded theory* (teoria funtsatua) delako korrantea: aurretik finkatuta ditugun kategoria batzuetatik abiatu beharrean, utz diezaiogun jendeari hitz egin dezan, eta goazen teoria eraikitze-
ra hortik aurrera. Zu joan zaitezke zure ikuspegiarekin eta zure goiko begiradarekin, telebistak ergeltzen duela eta abar, baina horrek ez dizu askorik balio jendearen erabilerak benetan ulertze-

Xabier Landabidea

1981, Bilbo

Ikus-entzunezko zientziak ikasi zituen EHUn, telebista-ohiturei buruzko doktoregoa egin zuen Deustun, eta irakasle ari da gaur egun, unibertsitate horretan. Gainera, Errota Digitala ikerketa-taldeko kidea da, eta hainbat komunikabideekin kolaboratu du. *Eremuz kanpo* izeneko irratsaioa egiten du astero Eneko Olazabalekin, Bilbo Hiria eta 97 Irratietan, zinemaren eta beste hainbat konturen inguruan.



ko. Jendearekin hitz eginda, adibidez, konturatzen zinen askorentzat oasi bat zela telebista. Horrek hobeto esplikatuz dezake zergatik kontsumitzen dugun telebista kontsumitzen dugun bezala.

Nola kontsumitzen dugu bada?

Nire hipotesiak eta nire emaitzek islatzen zuten telebistak tolesdura asko dituela, ez dela beti gauza bera. Hala ere, solasaldietan behin eta berriro agertzen ziren kategoria hauek: deskonektatzea, erlaxatzea, atsedean hartzea, ez pentsatzea... Horixe eskaintzen digu telebistak: ez dut liburu bat aukeratu nahi, ez dut telesail bat deskargatu nahi, nahi dut gailua piztu eta norbaitek zerbait eskaintzea. Zentzu horretan, nahiz eta sekulako aldaketa teknologikoak gertatu, telebistak sekulako indarra dauka oraindik, oso merkea delako eta oso erraz kontsumitzen delako, eta horrek izugarritzko indarra dauka gure gaur eguneko bizi-baldintzetan.

Eta telebista ikertzen duen pertsona batek nola ikusten du telebista?

Bada, gutxi ikusten dut, asko sufritzen dut-eta. Hamaika Telebistaren zale handia naiz, badakit oso minoritarioa dela, gainera euskaraz, eta oso modu prekarioan ari direla lanean, baina asko gus-tatzen zait, iruditzen baitzait arakatzen ari direla eta saiatzeko ari direla bide batzuk zabaltzen euskal telebistagintzan, azkura eragiten diguten gizarte-gai batzuk azaleratuz.

Zerekin sufritzen duzu?

Telebista normatiboagoarekin, batez ere ETBekin. Oso hurbiletik sentitzen dut min hori: egin den ahalegina eta gero, instituzionalizazio maila handi batera heldu ostean, zer eredurik jarraitzen ari zaion eta zertarako erabiltzen ari garen 1.000 lagun enplegatzen dituen irrati-telebista publikoa, oso mingarria zait hori.

Zure ikuspegitik, zer arazo ditu ETBk?

Bi problema nagusi ikusten dizkiot. Batetik, une batean hautatu zen publizitatearen bidez ko-finantzatzea irrati-telebista publikoaren eredu, eta erabakiaz eztabaida genezake, baina kontua da, une batetik aurrera, publizitatearen sarrirek sekulako garrantzia hartu zutela.

Bestetik, audientzien joko konkretu batean erori da bete-bete, eta ez dau-

kagu euskal ikus-entzunezkoen audientzia neurtzeko paradigma/parametro propiorik. Dagoenarekin jokatzeko dugu eta, horretan, pastelaren zati gero eta txikiagoa jasotzen dugu, eraldaketa oso sakon batzuk gertatzen ari direlako.

Biba Bilbo

Bilboko Begoña auzoan jaio, erribera ertzeko unibertsitatean lan egin, Otxarkoagan bizi: bere hiriaz galdetu diot Landabideari. “Ni errepresentatzen nauen sentsibilitate politikoarentzat etsigarria da Bilbo: kontserbadorea, oso klasista, konformista eta atzerakoia, abertzaletasun-berniz baten atzean. Aldi berean, erremediorik gabeko baikorra naiz: zer gauza interesgarriagorik Bilbok Euskal Herriarentzat egin dezakeena asmatzeko lana baino?”.

Noren erritmoan ari da dantzan?

Azken batean, ETBk hurbildu nahi du Espainiako kate pribatu arrakastatsuek sustatzen duten eredura. Hori problema bat da ideologikoki, uste baitut ez genuela horretarako sortu komunikazio-egitura publiko bat, eta problema bat da negozio-ereduaren ikuspegitik, ez dutelako lortzen eta ez dutelako lortuko. ETBk ez du lortuko Telecincok edo La Sextak daukan potentzia komunikatiboa, haiek hobeto egingo dutelako; guk, azkenean, egingo dugu haien kopia nolabait gaingabetu, nolabait euskaltzale, nolabait sozialki onargarriago bat, kakotx guztiak jarrita. Ez gara izango Telecincok bezain sexistak eta zabarrak, baina hor ari gara jokatzeko. Eredu gris batean geratzen gara eta nire ustez ez da batere interesgarria, eta gainera, ez du funtzionatzen. Leire Palaciosen Maite Iturbe zuzendariari egin zion elkarrizketan nabarmen agertu zen eusteko sentsazioa erakutsi nahian dabilzala, baina beharrezkoak doaz, beren funtzio publikoa

galduta, eta, okerrago iruditzen zaidana, ez dira ausartzen gaur egun irrati-telebista publiko batek eduki beharko lukeen funtzioa berrasmatzera.

Zein izan beharko litzateke irrati-telebista publiko baten funtzioa?

Bada ez dakit, baina nik uste dut funtzio klasikoa berreskuratu beharko genukeela, ilustrazioaren balore horiek: entretenimendua, informazioa eta formakuntza. Baina, gaur egun, ekosistema guztiz aldatu da. Adibidez, lehen, telebistak albisteak eman behar zituen, telebistak ematen zuenean jotzen zen albistearen benetakotasunak. Gaur egun hori zalantzan dago, orduan esango nuke telebistaren erritmoa birpentsatu beharko genukeela, eta funtzio publikoaren duen telebistari beste patxada bat eman, astekariaren ideiarekin lotuta: zergatik ez ditugu aurreko asteko gaiak lantzen, edo testuinguratzeko lan bat egiten... Justu kontrakoan ari gara, ordea.

Laborategien garrantzia azpimarratu izan duzu.

Hiru laborategi behar ditugu. Edukien laborategi bat: Hamaika eta tokiko telebistak badira, eta ETBko zenbait eduki ere bai. Audientzien laborategiak ere behar ditugu: 400 audimetro dauzkagu EAEn, horien bidez neurtu eta ezagutu ote ditzakegu egoera soziolinguistikoko oso ezberdinetan bizi diren bi milioi pertsonaren ohiturak eta praktikak? Badakigu ezetz. Orduan akaso behar ditugu beste hurbilketa batzuk, beste neurketa gureago batzuk... Eta hirugarrena, maila politikoan, beste laborategi edo prozesu parte-hartzaile bat behar dugu, nahi dugun eta gure ondoren datozenek urte batzuk barru behar izango duten irrati-telebista publikoaren zelakoa izan behar den pentsatzeko. Nik uste dut hortik doala alternatiba: pentsa dezagun eta egin dezagun eta pentsatzeko egin dezagun.

Deustuko Unibertsitatean zabilza irakasle.

Bai, eta oso pozik nago. Ea, unibertsitateak oso egitura mediebalak dira, oso konplexuak eta oso ez-eraginkorrak, erakunde asko bezala. Momentu honetan, eraso neoliberal oso gogor baten aurrean daude, etengabe frogatu behar dute beren bikaintasun maila parametro konkretu batzuen arabera, eta etenga-



“ETB ez da izango
Telecinco bezain sexista
eta zabarra, baina hor
ari da jokatzeko”.

beko lehia dago, ez horrenbeste ikertze-ko, baizik eta aldizkari jakin batzuetan artikulatuak argitaratzeko. Hala ere, unibertsitateak badu parte erromantiko hori ere, ezagutzarekin eta ideiekin lan egiten du, ikasleekin kontaktuan gaudela, ikasleak etengabe dira gazteak, gu zahartu arren... Oso estimulantea da.

Nola eragiten dizue irakasleei eraso neo-liberal horrek?

Asko etsitzen nau presak, egin, egin eta egin behar horrek: jende asko ari da antisietate-bajak hartzen, sekulako presioa dago, asteburuetan denok egiten dugu

lan, iluntzeetan denok egiten dugu lan... Xabier Gantzarainek haxe esan zuen artean lan egiteaz, eta gurean ere hala-ko zerbait gertatzen da: onartzen duzu gustatu egiten zaizula eta horregatik egiten duzula, baina esplotazio-karga nabarmen bat dauka. Gainera, uste dut areagotzen ari dela joera.

Zer iruditzen zaizu Deustuko Unibertsitate?

ETBri ikusten dizkiodan kontraesanak ikusten dizkiot Deusturi ere: besteen parametroen arabera dihardu eta eten-gabe galtzen du; ez du pentsatzen ea

zer-nolako ekarpena egin beharko lukeen gureagoak edo gureak liratekeen parametroetatik. Gure benetako helburua al da, adibidez, ingelesezko aldizkari batean argitaratzea, berdin izanda zeri buruz idazten dugun, ala Euskal Herriarekin lotutako gaiei buruz aritu beharko ginateke? Ikertzaileak bultzatu behar ditugu nazioarteko tesiak ingelesez aurkeztera ala euskarazko tesiak aurkezteko plan bat izan beharko genuke, jakinda inportantea dela ezagutza hizkuntza propioetan zabaltzea eta guk bakarrik egin dezakegula hori, euskal unibertsitate bezala?

Nola lotzen dira ikerketa eta pasioa?

Zeuk benetan egin nahi dituzun gauzak egiteko beste bide batzuk aurkitu behar dituzu, unibertsitateak diru-iturriak behar baititu, eta bezeroak markatzen dizu, nolabait, zertan ikertu dezakezun eta nola. Neu juntatu naiz neuk bezala gauzak egin nahi zituztenekin, kasu honetan Gorka Salces eta Koldo Diaz Bizkarguenagarekin, eta egitura inprobablea sortu genuen: Errota Digitala. Koldo Mondragon Unibertsitatean zebilen, Gorka EHUn eta ni Deustun. Geure unibertsitateek baimena noiz emateko zain egon gabe, erabaki genuen elkarte sortzea gauzak egin ahal izateko. Behin elkarte sortuta, unibertsitateak ondo hartzen du. Alderantziz, baimena eskatuz gero, zailagoa da.

Zirrikituak bilatu behar dira, aurkitzen dituzunean errekonozitu, eta noiz-behinka zuk zeuk eragin zirrikitu horiek. Ez du sekulako kolpea izan behar, baina batzuetan bultzada batekin posible da arrakalak zabaltzea. Zeren, bestela, elefanteak eramaten zaitu beti.

Izango garelako garelako dio zure Twitterreko biografiak. Azalduko al zeniguke zer esan nahi duen horrek?

Beñat Irasuegiarekin konpartitzen dut lema hori, etorkizunaren nostalgia. Honatx nire baikortasunaren gakoa: aukerak hor daude, errekonozitu ditugunak eta oraindik errekonozitzeko dauzkagunak. Ez dakit zer izango garen, baina nik uste dut ausartu beharko ginatekeela irudikatzen zer izan nahi genukeen, eta hortik aurrera abiatu, gure lan-lekuetatik eta militantzia-lekuetatik eraiki, eta gozatu dezagun bide horretan.

Azken hausnarketarik?

Susmoa dut gure aukeren azpitik jokatzen ari garela, herri bezala eta norbanako bezala. Zentzu objektibo batean hitz eginda, garai ezinezko batean bizi gara, tresna eta aukera ia-ia infinituak dauzkagu informatzeko, jendearekin harremanetan jartzeko, ezagutzeko... Eta nola kudeatzen dugu hori? Bada, aurrez eza gutzen ditugun erreferentzietara biltzen gara. Uste dut apur bat alferrak garela. Horrekin ez dut egin nahi halako diskurtso bat, super pasiboak garela eta denok gaudela super alienatuta. Lehen pertsona ari naiz: uste dut gauzak egiteko aukera askoz gehiago daudela, norabide askotan, benetan egiten ditugunak baino. ■



AGENDA

Udazken kulturala 2016










URRIAK 30, 10:00, Goiko plazan
DANTZA:
**MUXIKOAK
GUINNESS WORLD RECORD**

URRIAK 30, 20:00, Gezala Auditoriumean
KONTZERTUA:
**EÑAUT ELORRIETA:
DESERRIKO KANTAK** SARRERAK AGORTUTA 8€

AZAROAK 6, 20:00, Gezala auditoriumean
TXALO PRODUKZIOAK-ANTZERKIA:
BI IZARREN KALENTURAK 8€

AZAROAK 13, 19:30, Gezala auditoriumean
KANTALDIA
MIKEL URDANGARIN 8€

AZAROAK 19, 12:30, Gezala auditoriumean
MUSIKA:
**SANTA ZEZILIAKO
KONTZERTUA**

AZAROAK 19, 20:00, Gezala auditoriumean
HISTRION TEATRO - ANTZERKIA:
ARIZONA (GAZTELERAZ) 8€
Gema Matarranz aktorea Max sarietan finalista obra honekin

ABENDUAK 18, 20:00, Gezala auditoriumean
LAUKA TEATRO - ANTZERKIA:
AMODIOAREN ZIEGA 8€

ABENDUAK 20, 19:30, Kultura Aretoan
IBAI IZTUETAREN HITZALDIA:
**CULTURA VASCA vs.
EUSKAL KULTURA**

Informazio gehigarria eta sarrerak salgai www.lezo.eus/agenda

LEZO



Salaketa faltsuak

Bere senarraren jipoi baten ondoren, poliziarengana jo zuen Elisak. Txosten ugari zituen: psikologoen eta gizarte langileek baieztatzen zuten genero indarkeriaren biktima zela, urteetan zehar tratatu txarrak pairatu izan zituela eta bere alabari indarkeria horren lekuko izateak kalte egin ziola.

Justizian konfiantza handia zeukan, baina epaiketaren eguna heldu zenean, ezusteko batez topo egin zuen: bere senarrak ere Elisaren kontrako salaketa jarria zuen. Elisak jipoi horretatik defendatzerakoan atzamarrekin senarra markatu zuen eta gizonak hori erabili zuen bera ere erasotua izan zela esateko. Epaileak bien kontrako urruntze agindua ezarri zuen, bien arteko liskar isolatua izan balitz bezala. Are gehiago, Elisak tratatu txarren biktimaren profila ez zuela betetzen esan zuen epaileak, ingeniaria izateagatik.

Lantzean behin, indarkeria matxistaren inguruko eztabaidan salaketa faltsuen zurrumurruak indarra hartzen du: emakumeek Genero Indarkeriaren Kontrako Legea etengabe erabili ei dute, bikotekide edo bikotekide ohien kontrako mendekua hartzeko edota dibortzioaren guda irabazteko: etxea, kotxea... Datu ofizialak bitarte erantzuten dute feministek: salaketa faltsuak %0,014 baino ez dira. Baina badago beste salaketa faltsu mota bat, askoz ere hedatuagoa eta ezkutuagoa.

Emaztearen kontrako salaketa faltsua jartzea ez zen Elisaren senarraren bat-bateko ateraldia izan. Seguruenik, bere abokatuak defentsa estrategia hori gomendatu zion. Zigorak saihesteko bide maltzur nahiko berria da salaketa gurutzatuen estrategia. Amnistia Internazionale erakundeak eta Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak kezka hori adierazi dute azken urteotan. 2011.



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Emaztearen kontrako salaketa faltsua jartzea ez zen Elisaren senarraren bat-bateko ateraldia izan. Seguruenik, bere abokatuak defentsa estrategia hori gomendatu zion. Zigorak saihesteko bide maltzur nahiko berria da salaketa gurutzatuen estrategia. Amnistia Internazionale erakundeak eta Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak kezka hori adierazi dute azken urteotan

urtean 509 emakume kondenatuak izan ziren genero indarkeria salatu ondoren. Gehienetan emakumeek salaketa kentzen dute, aurrekari penalekin bukatu ahal dutenaren beldurrez.

Estrategia horrek arrakasta du epaitegietako gabeziekin topo egiten duelako. Emakume gehienek ez dute kasua ondo prestatzeko aukerarik. Epaiketa azkarretan apenas bost minutu dituzte ofiziozko abokatuarekin hitz egiteko. Bost minututan ezin da hamar urtetako indarkeria matxista azaldu, ezta estrategia egokia adostu. Erasotzaileen artean, ordea, ohikoa da abokatu bat ordaintzeko aukera izatea.

Pasa den urtean, salaketen %43,2 artxibatu egin ziren Espainiako Estatuan, froga falta egotzita. Baina frogak ez dira bilatzen. Epaile askok bakarrik azkenengo liskarrari buruz jakin nahi dute. Ez dute ganoraz aztertzen, ea urteetan zehar indarkeria egoera egon ote den, ez dituzte txosten psikologikoak eskatzen, ez dute indarkeria ekonomikoa edota sexu indarkeria kontuan hartzen, ezta kontrol edo umiliazio aztarnak bilatzen. Salaketa gurutzatuak daudenean, epaileari erraza zaio muturreko erabaki erosoa hartzea: bien salaketak artxibatu edo biak zigortu.

Emakume batek urteetan bikote esparruko indarkeria matxista salatzearen pausoa ematen duenean, kasua artxibatzen bada edo bera ere salatua eta zigortua izaten bada, justizian zeukan konfiantza galduko du, eta gizona garaile sentituko da. Hori bai dela egoera erreala eta kezagarria.

Pikarako laugarren urtekarian argitaratu dudan erreportaje baten ideia nagusiak laburbildu dizkizuet. Erreporaje hori prestatu nuenetik, salaketa faltsuei buruz norbaitek galdetzen didanean, hau guztia kontatzen diot. ■

Sormena zigorturik

Urte honen hasieran azaldu zen albistea komunikabideetan, Espainiako hainbat idazle edadeturi Gizarte Segurantzak beren pentsioa itzultzeko eskatzen ziela, liburuen salmentatik dirutxo bat eskuratzen jarraitzen zutenez, erretiroa kobratzeko eskubiderik ez zeukatelakoan. Galdeztzen hasi, eta denak bat zetozen hura zorakeria bat zela, jubilazioko dirua lan-bizitza osoan kotizatutakoaren ordain bidezkoa delako, eta sormenak (gizarte osoari onura dakarkion jarduera izaki) beste tratamendu bat behar duelakoan. Bitxikeriaz hartu zen hemen berria, espainol burugabeen xelebrekeria urrun bat zelakoan edo. Baina Hego Euskal Herrian Espainiaren eskumena dira pentsioak (inolaz ere transferitu nahi ez dutena, gainera) eta haren menpe gaude beraz, Hegoaldeko langile guztiok. Baita era bateko edo besteko sormen-lanetan aritzen garenek ere.

Garai berean gertatu zen (komunikabideetan zabaldu ez zen arren), hainbat euskal idazleri gutun bana iritsi zitzaion, Iruñeko Gizarte Segurantzako inspektore batek bidalita, era guztietako paperak eskatuz: azken bost urteetako faktura guztiak, errenta aitorpenak, autonomoetako kotizazioak, BEZ aitorpenak eta beste. Paper horiek



Xabier Mendiguren

IDAZLEA
@xme64


Oraindik ez dakigu zertan amaituko den afera. Baina miatuak eta kaltetuak ez gara idazleak bakarrik. Orain dela gutxi bertsolari batekin egin nuen topo, Seguritate Sozialak bijilatuta dauzkala esan zidan, plazetan agertzen baziren, pentsioa kentzeko arriskuarekin

guztiak bildu eta halako egunetan halako ordutan Iruñeko bere bulegoan agertzeko exijitzen zien, ez-dakit-zer zigorren mehatxupean.

Idazle horiek dardarka eta ezer ulertu ezinik: zer gertatzen da? Zergatik eskatzen didate niri hau? Gerora jakin zuten Iruñeko Hizkuntza Eskolako diru-kontu guztiak ari zirela miatzen, eta, bertan hitzaldi bat emana zutenez, inspektoreak eskatzen zien, ia denak langile soldatadunak izan arren, beren lantokiko kotizazioaz aparte, langile autonomoetan alta eman eta ordaindu egin behar zutela, idazletzatik diru-sarrerara bat zutenez gero. Berdin zitzaion diru-sarrera horiek autonomoetako kuota baino txikiagoak izatea, hori ez omen zen bere arazoa.

Oraindik ez dakigu zertan amaituko den afera. Baina miatuak eta kaltetuak ez gara idazleak bakarrik. Orain dela gutxi bertsolari batekin egin nuen topo. Urte batzuk bai, baina oraindik ere sasoian eta argi dagoena. Aspaldian kantuan ez dudala ikusi komentatu, eta Seguritate Sozialak bijilatuta dauzkala esan zidan, plazetan agertzen baziren, pentsioa kentzeko arriskuarekin.

Adin batetik gorako bertsolari guztiak isiltasunera behartuak; idazleak hitzaldirik eman ezinik, egundoko isunen beldurrez; beste sektore batzuetan auskalo... Horra, porrotaren zorian dagoen Espainiako Gizarte Segurantzaren ekarpena euskal kulturari. ■



Ur-tanta geldoetan



Jose Inazio
Basterretxea
EHU-KO IRAKASLEA

Presoak nahi ditu Urliak etxean. Inork barkamena eskatuko ote dion jakin gura du Sandiak. Kolkoari galdetu dio Berendiak ez ote duen txantxangorriak berriz ere abestu behar.

Luzatze geldoak ez du leuntzen mina, inorena. Baina, tema hor da, bake-prozesuaren geldotunean. Arazoa da atzerapenarekin datozela ETaren armak. Bost urte badira-eta su-etenetik hona. Eta lantresnak bizkarrean dituzte oraindik.

Arazoa da estatu-aparatuak ez dakiela moldatzen tirorik gabeko egoerara: ez du hark nahikoa garaipena, anikilazioa bilatzen du, politika militar frankista zaharrenean bezala.

Mantso eta otso

Isilik izan da ETA hilabetetan, bere eskolean bilduta. Bat-batean, uharkara azaldutako tangada ero gisa, agiria ekarri du udagoienaren etorrerarekin batera: behinolako martiriak –bereak baino ez– gogorarazteko, irailaren hogeita zazpian. Bizirik dela konturatu gara, ikusi dugu iturri horrek baduela ur-emaria, ahaztuta geneukan arren. Burua jaso, iritzia eman aldarri, eta otzandu egin da neguko kasernetara.

Denboraldi batez, isilik izan da Espainiako Barne ministro denak deitoratua. Baina, delako “banda terrorista” esnatu dela eta, hark komunikatua idatzi duela eta, egunkarietako azaletaraino heldu dela eta, berak –ministro jaunak– zerbait egin behar duela eta, Parisko zuloa desegin dute.

Hor laboratu dira orpoz orpo polizia frantse-sak eta espainolak telebista kamerei so eta beha. Nabarmendu beharra, besteren protagonismoa neutralizatu guran.

San Simon eta San Juda egunez, ETaren komunikatua, beste bat, esateko ezen alde batera utzita zeukatela eurek Frantzia aurkitutako zuloa. Bazekitela eurek lokalizaturik zutela poliziek hura, eta ez zirela aspaldi hara hurbiltzen.

Eta hurrengo, zer?

Bizi eta jauzi

Kontatu didatenez, Deba arroan bada erreka bat, deitzen zaiona Kilimon. Burua jaso eta hura makurtu ibiltzen da mendian behera, kukuka: gutxien espero denean, han eta hemen gordetzen, edo hor eta han azaleratzen. Eta hortik, haren sona. Inoiz ur gutxi, baina beti fama handi.

Aspaldion, Kilimon erreka tanta iheskorren gisara, gorde-gordeka dabilta ETA eta Espainiako Barne ministerioa: goizetan lehor eta arrastietan emankor. Zergatik burua ostentzen eta zergatik azaltzen duten... ez da erraz asmatzen.

Baina, ez da ezkutaketan olgatzeko unea. Une honetan –armak entregatu beharreko abagune honetan, presoak etxeratzeko ibilaldi luze honetan, eta bakearen bidea diseinatu eta kudeatzeko garai zail honetan–, ibai zindoagoa behar dugu. Bestela, ez du txantxangorriak berriz ere abestuko erreka-muna gainean. ■

Putreak



Itxaro Borda
IDAZLEA

Greziako deboila ekonomikoak ez ditu gehi-go egunkarien lehen orrialde katastrofistak emokatzen, baina artean herriko ontasunen arpilaketak isilean jarraitzen du, ustiaketak, biluzteak: Ulises, menturaz, ez da Itakara itzuliko. Penelope bakarrik geratuko da.

Diru-laguntza berri bat erdietsiko du Greziak eta trukean, troikaren esku geratuko dira, alegia hurrengo mende bukaeraraino, bertako aberastasun publikoak eta zerbitzuak. Sosa ukan eta *Taiped* agentzia buru, berehala hasiko den pribatizatze oldea kudeatzeko sortua izan da *Superfund* entitatea. Horren baitan aurkitzen dira goi-mailako hiru funtzionario frantses egitura

sozial ohiaren hilikiak moko zorrotzez klikatzeko prest.

Suezek aspaldian begiztatua du Atenas eta Tesalonikako ur sarea, EDF ere lehen lerroan dabil elektrikaren alorrean, Vinci autobideen sailean, Posta halaber (hobe luke hemen dituen langileen egoera mentalaz arduratzea) eta Alstom burdinbideak bereganatzeko. Besteak beste. Ardita bada egiteko, ausarki, eta putreak gose dira.

Calaisko *jungle* delakoa hustu zuten, herrialde osoak pobretzen dabilta, pobreak beraien gabe-keriaz hobendun aurkezten dizkigutela: uste dut Autza kaskoko saiak bihoztunagoak direla.

Eta hori ez da seinale ona. ■

Hiriak birpentsatzen



"Farola gorria ala berdea?" galdegiten zaie herritarrei, baina agian ez da farolarik behar. Hirigintza planetan herritarren eta ikuspegi anitzten benetako parte-hartzea ongi bideratzeak erabaki sendoagoak bermatuko lituzke.

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Gure bizimoduan, bizi-kalitatean eta harremanetan eragin zuzena du hirigintzak, baina produkzioaren eta kapitalaren hiri-eredua eraiki dugu, eta falta zaigu gizartearentzako eta bizitzarako hiriak eraikitzea. Horretarako zein urrats eman behar ditugun galdetu diogu hainbat arkitekto. Teoriatik praktikara jauzi egin duten adibideak ere eman dizkigute.



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Argi dute elkarrizketatuek: ikuspegi ekonomizista du oinarri egungo hirigintzak. Esaterako, Lurzoru Legeak lurjabeen eskubideak bermatzen dituela baina erabiltzaileen beharrak ez dituela maila berean jartzen ohartarazi dute Projekta taldeko Miren Vives eta Patxi Galarragak. “Azpiegitura eta ekipamenduen planifikazioa ere mundu produktiboaren beharretara egokitu da”.

“Ekonomia bultzatzeko elementutzat hartzen da Lurralde Antolakuntza –dio Unai Fernandez de Betoñok–, eta halaxe aitortzen da gainera, konplexurik gabe. Baina Lurralde Antolakuntzak beste irizpide batzuk ere hartu beharko litzuke kontuan, ingurumena, kultura zentzu zabalean eta ikuspegi soziala tarteko, hirien hazkunde zentzuduna bilatu beharko luke, ez soilik ekonomia berpiztea”. Egungo ereduak hasieran metafora bat zena errealitate bihurtu duela azaldu du: Euskal Hiria. “EAE hiru hiriburuak lotu nahi dituzte urbe handi bat eginez, Europa mailan lehia-tzeko adina indar izateko, merkatu globalean muturra sartu eta inbertsioak erakarri ahal izateko. Kostaldean hiri lineal bat sortzen eta kolonizatzen ari gara Bilbo eta Donostia artean, AP-8aren inguruan (Lapurdiraino luzatzen dena), eta barnealdea husten ari da. Kostaldean populazioaren %60 bizi da, azalera askoz txikiagoa duen arren. Lurralde kohesioaren mesedetan, desoreka hori orekatzen saiatu beharko litzateke Lurralde Antolakuntza; demografia puntu

bakarrean pilotzen ari bada, estrategia bat behar genuke hori mugatu eta beste leku batzuetan hazkundera sustatzeko”.

Euskal Herria, Guggenheim efektuari segika

Egungo hirigintzaren gaitz nagusiez galdetu diogu Betoño gasteiztarrari eta Lurralde Antolakuntzan bezala, hirietan ere joera berdintsua dela azaldu digu: “Bilbo aspalditik dago sartuta internazionalizazioaren jokoan eta beste hiriak atzetik doaz, denok nahi dugu gure Guggenheim efektua sortu, turistak eta inbertsioa erakartzeko. Globalizazioa, Europan oro har, banalizazioa ekartzen ari da hirigintzan eta oso antzerakoak dira hiri guztiak, baina lortu beharko genuke hiri bakoitzak dituen berezitasunak mantentzea eta sustatzea, berezitasun horien artean aintzat hartuz hizkuntza, tokiko janaria, tokiko ezagutzak... Tentsio hori ematen ari da”.

Guggenheim efektuaren atzetik, auditorio, hotel, museo eta azpiegitura handiekin liluratuta aritu dira gure agintariak, oparotasun garaian. 1998-2008 hamarkadan adreiluaren burbuilak berotuta asko eraiki ostean, ordea, krisi ekonomikoak mantsotu egin du erritmoa. “Lurraldea eraldatu behar da, ez gaitezen inozoak izan –dio Betoñok–, ezin dugu azpiegitura guztien aurka egon, baina oreka lortzea da gakoa. Jaurilaritzak eta Nafarroako Gobernuak desarrollismoaren eskema jarraitu dute urte luzez eta orain dagokiguna da konturatzea eraiki ditugun zenbait azpiegitura handi ez ditugula %100ean erabiltzen eta gutxienez lehenengo urratsa dela horiek erabili arte berririk ez eraikitzea”. Alegia, beste metro koadro bat urbanizatu aurretik, ondo aztertu zer gertatzen den jada urbanizatuta dagoen horretan. Beste saltoki, etxe, industriale, aisi-gune, azpiegitura... bat aurreikusi baino lehen, birpentsatu eta berrerrabili daukaguna. “Egungo ereduak, eraiki eta eraiki, saihebidetuta bete deanean beste saihebidetuta bat egitea, epe luzerako begiradarik ez duen ihesaldia da, ez da jasangarria”.

Berdin etxebizitzekin, udalen jardun kuttunetakoa baita etxegintza, ez alferrik udalen finantzazio iturri nagusiak zergak (batik bat ondasun higiezin zerga, etxebizitzari lotuta) eta etxegintza bera baitira. Baina “etxe hutsak ditugun heinean (Euskal Herrian %10 ingu-

ru), zertan ari gara etxe berriak egitea planifikatzen?”.

Hirietako erdiguneetan aldaketa sumatu du arkitekto gasteiztarrak: alde zaharren berezitasunaz konturatu eta horiek edertzen hasi gara, txukuntzen, mimatzen, arkitektonikoki politak jartzen eta zuten gainbeherari buelta ematen. Horrek, ordea, gentrifikazio mailakaturia ere ekarri du batzuetan: alegia, alokairu, saltoki eta gainerakoaren prezioa igotzen ari da guneotan eta jende askok alde egin behar izan du.

Hirigunea zaharberritzeko irizpideak ere ez dira beti egokienak izan. “Hainbatetan, dirua bertako ikastetxeak edota liburutegiak hobetzera bideratu ordez, eraikin ikusgarrietan gastatu da, edo eskailera mekanikoak museoak lotzeko jarri dira eta ez irisgarritasunaren ikuspegitik beharrezkoagoak ziren lekuetan, graffiti aldarrikatzaileak ezabatu dituzte eta udalak sustaturiko muralak hobetsi...”. Turismoak hartu duen garrantziak badu zerikusirik, estetika moderno eta politaren izenean batzuetan kutsu artifizial eta homogeneoa gailendu baita hirigintzan, nortasun propioaren kaltetan.

Espazio publikoa, denon espazioa?

Administrazioak gestionatzen du kalea, denon espazioa, baina gehiengoaren ongizatea bilatuz egiten du ala batzuen interesen mesedetan? Sarri, sektore pribatua bereziki zaintzeko erabakiak hartzen ditu administrazioak, erantzun digu Betoñok: “Eta ez dago gaizki, baina ez bada beste guztion kaltean. Bilboko espazio publikoaren ordenantzan ikusten da: debekatuta dago kalean edatea, baldin eta ez baduzu edari hori taberna batean erosi; hor asmo garbia dago kalean egiten dena kapitalizatzeke eta sektore pribatuarekin, ostalaritzarekin, lotzeko. Gasteizen Patxi Lazcozek proposatu zuen, alkate zenean, Plaza Berria (euskal neoklasikoaren gailurreta ko bat) estaltzea, merkataritza-zentroa bailitzan funtzionatu zezan. Ostalaritza gehiegizko babesaren ematen zaio, terrazzen fenomenoak lekuko. Eta zergatik debekatzen dira okupazio batzuk, baina uzten zaie turistek kalea nahieran erabiltzen? Gero eta handiagoa da espazio publikoaren pribatizazioa eta mugatu egin beharko litzateke”. Hala ere, espazio publikoa administrazioak kudeatzearen aldekoa da arkitektoa, bestela botere ekonomikoak kalea are gehiago fagozi-

tatuko lukeela iritzi baitio. Adibiderako, Madrilén Sol plazako metro geltokia Vodafone Sol izan da gutxira arte edo istiluak sortu ziren Gasteizko plaza batean, Heineken kartel erraldoi bat behin betiko jarri nahi izan zutenean.

Ezin aipatu gabe utzi, bestalde, gure hirigintza ereduaren autoek eta merkataritza-guneek duten nagusitasuna. Diskurtsoa badakigula dio Betoñok, alde batetik bestera autoz mugitzera derrihortzen gaituzten urbanizazioen ordez hiri jarraiak behar ditugula, trinkoak, baina kontrakoa dela joera: Euskal Herriak geografikoki duen kokapen estrategikoa aprobetxatuz, errepideak egin eta egin ari gara, saihasbidearen saihasbideak, ekonomian pentsatuz. “Gertutasuneko hiriak aldarrikatu behar ditugu, lanera oinez joan ahal izateko modukoak. AEBetan hori sustatzen ari dira orain, eta *New Urbanism* deitzen diote, baina funtsean Europako hirigintza zaharra berreskuratzean datza”.

Saltoki handien kasuan, merkataritza askearen ideia juridikoa arriskutsua dela azpimarratu du arkitektoak. Esaterako, Eusko Jaurlaritzak gune hauek mugatzeko plana atera eta ondorioztatzen zuten Donostiako Garbera ezin zela handitu, 25.000 metro koadro baino gehiago ezin zituelako izan, baina Garberak salaketa jarri zuen eta Madrilgo auzitegiak arrazoia eman zion, merkataritza-askatasuna ezin dela mugatu argudiatuta. “Ekonomian dena liberalizatzen dugun heinean, hirigintzari ere eragingo dio”.

Egungo hiri ereduak ghettoak sortzen al dituen galdetuta, Euskal Herrian ghettoak batez ere 70eko hamarkadan sortu zirela argitu digu, industrializazioak erakarritako migrazioari lotuta periferian etxebizitza poligonoak jaio zirenean (Otxarkoaga, Bidebieta, Zaramaga, Baiona iparraldeko Gurutze Sainduko ZUP bloke erraldoiak...). “Urteekin, auzo hauek hobetu egin dira, nahiz eta soziologikoki neurri batean ghetto izaten jarraitzen duten; hala erakusten dute hizkuntza datuek”.

Hartu parte: zer nahi duzu, farola gorria ala berdea?

Modako gaia da herritarren parte-hartzea, eta 2006ko EAEko Lurzoruaren Legeak adibidez jasotzen du kontzeptua, baina esaten du emaitza ez dela loteslea, ez du eragin zuzenik, “eta horre-

» Turismoak hartu duen garrantzia tarteko, estetika moderno eta politaren izenean batzuetan kutsu artifizial eta homogeneoa gailendu da hirigintzan, nortasun propioaren kaltetan

» **UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO:** “Ostalaritzari babes gehiegi ematen zaio, terrazen fenomenoak lekuko. Eta zergatik debekatzen dira okupazio batzuk, baina uzten zaie turistei kalea nahieran erabiltzen? Espazio publikoaren pribatizazioa gero eta handiagoa da”

» **P. GALARRAGA, M. VIVES:** “Etiket kanpo lan egin eta autoz mugitzen den estandar ‘neutroaren’ arabera hirigintza egiten da, kontuan hartu gabe zaintzan dihardutenak, haur eta adinekoen beharrak... Jende hori ikusarazteko, sailen arteko elkarlana behar da Hirigintzan”

» Beste enpresa, aisi-gune, saltoki, etxe, azpiegitura... bat eraiki aurretik, birpentsatu eta berrerabili daukaguna, dio Betoñok



tan sakondu beharko genuke, galdeketa eraginkorra izateko”. Galdeketa eurak ere, itxurakeria dira sarri: “Emaitza jakinen gainean galdegiten zaie herritarrei, zein nahiago duzu, farola gorria ala berdea? Baina agian ez da farolarik behar! Edo kontsulta egiten da soilik administrazioari interesatzen zaionean, parte-hartzearen erabilera alderdikoia eginez: zergatik halakori buruzko galdeketa bai, eta bestelakoari buruz ez?”.

Zeinentzat eta zeren arabera birmoldatu hiriak? Eta nola?

“Eraiki dugun hiri ereduak lan-hiria da, produkzioaren eta kapitalaren hiria, eta falta zaigu gizartearentzako eta bizitzarako hiria eraikitzea, bizitzak eta zaintzak aintzat hartuko dituen”, dio Hiri kolektiboko Koldo Telleriak. Proiektu taldeko Miren Vives eta Patxi Galarragak gaineratu digutenez, hirigintza planetan jende asko ikusezina da eta azeri kasualitatea, beti jende bera da kanpoan gelditzen dena: “Estandar ‘neutro’ bat sortu da, etiketa kanpo lan egiten duena, autoz mugitzen dena leku batetik bestera, eta horren arabera hirigintza egiten da, kontuan izan gabe zaintzan dihardutenak, haur eta adinekoen beharrak, ezgaitasunen bat dutenena...”.



NFERIAS.COM

Unai Fernandez de Betoñoren hitzetan, ezin dugu azpiegitura guztien aurka egon, baina oreka lortzea da gakoa. Desarrollismoaren eskema jarraitu dugu urte luzez eta orain dagokigu konturatzea eraiki ditugun zenbait azpiegitura handi ez ditugula %100ean erabiltzen. Irudian, Ficoba eraikina, Irun eta Hendaia artean.

Soluzioa, Vives eta Galarragarentzat, gainerakoak ere barnebilduko dituen hirigintza da: “Zenbat eta irizpide eta datu gehiago bildu, orduan eta orokorragoa izango da ikuspegia eta orduan eta jende gehiagoren beharrak izango ditugu mahai gainean aztergai; erantzuna beti izango da osoagoa eta pentsatuagoa, plan bizigarriagoak eta bidezkoagoak egin ahal izateko”. Horregatik, hirigintzan arlo denak elkarlanean aritzea ezinbesteko jotzen dute: “Ongizate sailekoei eskatu ohi diegu muturra sartzeko Hirigintzan, ‘ez geratu zuen esparruan’, eta berdin Hirigintzakoei eurei ere, ‘zabaldu ateak Berdintasun Sailari, Migraziokoa-ri... Bestela beti jende bera geldituko da bazterrean”. Projektak berak “hiri barneratzaile, aktibo eta osasuntsuak” lortzea du helburu, eta ez dira bakarrik. Horren lekuko, hirigintzaren ikuspegi kritikoa egiten duten behatoki metropolitarrak, diziplina anitzetako profesionalen osatutak. Hirigintza planetan komunitatearen parte-hartzea ongi bideratzeak ere, benetako parte-hartzea, erabaki sendoagoak bermatuko lituzke.

Zentzuzko bizilekuak ereiteko irizpide batzuk

Zein gidalerro behar ditu lurralde plan batek? Hona Unai Fernandez de Betoñoren hainbat proposamen: balio ekologikoko gune babestuek elkarren artean egokiro lotu; balio kultureko guneak babestu, euskararen arnagune geografikoak ahaztu gabe; nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basogintzarako lur egokienak babestu, elikadura eta energia burujabetza handiagoa helburu; herrietako alde zaharrak eraberritu eta auzoak zaharberritu; azpiegitura handien beharra errentagarritasun sozialaren arabera ere baloratu; gelditzen diren lur komunalen jabetza publikoa blindatu; etxebizitza zein industria-higiezinaren espekulazioa gelditzeko mekanismoak indarrean jarri; merkataritza-gune erraldoiei ‘aski da’ esan; hiriburuen hazkunde amaigabeari mugak jarri; kostaldearen eta barnealdearen zein hiriaren eta landaren arteko lurralde-desorekak konpentsatu, nazio ikuspegi txertatu...



**TALLERES
MITXELENA**
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

CAMPOS

*Itsasoko onena,
PRESTATZEKO ERRAZENA*

www.clubcampos.com





Teoriatik praktikara

INGURUMENA

Berdegune isolatuen ordez, korridore ekologikoak, naturari jarraikortasuna emango diotenak aldarrikatu dituzte elkarrikketa-tuek. Esaterako, Gasteizko eraztun berdearen adarrak, hirian barne-eraztun berdea sortuz. Animaliak, zuhaitzak... ez daitezela eremu berezietan egon, hormigoiz inguratuta: parke solteak egin beharrean, parkeak elkartzea. "Naturatik kanpo dauden elementu gisa ulertu dira hiriak: hiriak ez dira natura, landa-lurra da natura. Eskema hori apurtu eta ekosistemaren parte diren elementu bizitzat hartu behar dira, hiria eta landa berrakatu daitezela", dio Koldo Telleriak. Biosferaren Erreserbak ere, kontzeptualki gutxienez, interesgarriak iruditzen zaizkio Unai Fernandez de Betoñori, ingurumenaz gain giza jardueraren aintzat hartzen dutelako.

Energia kontsumoari begira, azpiegituratan erabiltzen den energiaren portzentaje bat berriztagarrietatik eratorria izatea derri-gorrezkoa da; zenbat eta gehiago handitu portzentaje hori, orduan eta hobeto. Euri-ura, haizea, egurra, eguzkia... aprobetxatzen duten eraikin "adimentsuak" ere badira, hainbeste ur alferrik ez galtzeko komun idorrek erabiltzen dituztenak... Berokuntza eta garbiketa sistema kolektiboaren alde egiten du Telleriak: "Zergatik ez garbigailu bat bloke osorako, etxe bakoitzak berea izan ordez?"

MUGIKORTASUNA

"Super-irlak" proiektua jarri dute martxan Bartzelonako bederatzi etxaditan: auzune horien barneko espazioan ezin da autorik sartu (karga eta deskargarako ez bada, auzunea inguratu baino ezin dute egin autoek) eta lasai asko ibili daitezke oinezkoak etxadietan barna. Gure alde zaharretan sarri egin ohi dena beste etxadi edo auzoetara zabal-tzea litzateke ideia, eta Gasteizen adibidez aztergai dute dagoeneko. Tankerako esperientzia baten berri eman digu Ander Gortazarrek: Freiburg hiri alemaniarreko Vauban auzoan, autoak ez daude debekatuta, baina kalean ezin da aparkatu eta etxebizitzek ez dute garajerik; autoak uzteko bi eraikin daukete auzo alboan eta garraio publikoa –auzoko kale nagusitik igarotzen dena– beti dago autoa baino eskurago. Ondorioa: hirian auto-jabe gutxien dituen auzoa da eta



Trenbide ohia berdetuz Cali (Kolonbia) hirian egingo duten korridore berdea.

kotxea partekatzeko *car sharing* programan bazkide gehien dituen. Aipatu digu, halaber, hiru urtetan hirigunetik autoak desagertzeko proiektua duela martxan Oslok; hogeitun autorik gabe bizi eta mugitu ahaliko den hiria izateko plana garatzen ari direla Hanburgon; autobus sarea berrikusten eta berrasmutzen ari direla leku batean baino gehiagotan, "maiz duela 100 urteko hiriaren formari erantzuten baitiote oraindik"; eta hiri barruko autobideak eraisteko eskatzen duen mugimendu indartsua ari dela hedatzen AEBetan (Highways to Boulevard).

Hibridazioa bultzatzen duten herriez mintzatu zaigu Telleria: espaloiak eta errepi-deak, dena maila berean jarri, trafiko-seinaleak kendu eta herri guztian abiadura gehienez 20-30 km/ordura mugatuz, oinezko, txirrindulari eta gidarien arteko elkarbizitza, errespetua eta elkar-ulertzea lortu dute, garraioaren arabera espazioak banandu ordez. Herri txikietan bakarrik ez, hirietako auzoen barnean ere egin ahaliko litzateke.

Herri eta hiri-ibilbideak bultzatzeko egitasmoak zabaltzen ari dira (Hiribili ekimena aipatu digu Projektak). "Herri askotan futbol zelaia, igerilekua, gimnasioa... egiteko lekua izan dute, baina ezin da ibili! Ibiltzeko leku dezenteak egituratu behar dira, herria bera izan dadila jardueraren fisikorako instalakuntza, denak ez baikoaz gimnasiora". Errepide eta kaleak oinezkoentzako bide bihurtzean, dena den, helburuak argi izatea komeni da,

"sarri kalea merkantilizatzea baino ez delako asmoa, eremu hauek komertzioz eta terrazaz betetz", ohartarazi du Telleriak.

Irisgarritasuna mugikortasunari lotuta ulertzen dute galdekaturako arkitektoek. Bat egiten dute denek: gertutasuneko hiria da gakoa, denok ahalik eta gutxien mugitu behar izatea eskatzen duen hiria; bizitokia, lana, aisia, saltokiak... hurbil izango dituen. Azken finean, herritar guztiok ditugu eta izango ditugu irisgarritasun maila ezberdinak, gure bizitzan zehar.

GENEROA

Leku ugarian egin dira puntu beltzen mapak, herritar guztiak gizon helduak ez garelako moduko kale seguruak bermatze aldera. Mapa moreak ere egin dira hainbat tokitan, emakumeak kontuan izango dituen hirigintza aztergai. Hiria kolektiboko Telleriak garbi du: "Egungo hirigintza rol maskulinoetara egokitzen da: mugikortasun azkarra eta handia, zaintzak lekuri ez duen hiria... eta horren aldean elkar-ezagutza eta elkar-zaintza sustatzen duten hiriak behar ditugu. Lan produktiboa eta lan erreproduktiboa, biak kontuan hartzea da gakoa". Bide horretan, hainbat ordenantza sartu ditu Projekta taldeak Irungo Plan Orokorrean: zaintzari lotuta, besteak beste hemendik aurrera erakitzen den etxebizitza blokeak derrigorrez

haur-kotxeak eta adinekoentzako scooterrak gordetzeko lokala izan beharko du, baita gutxienez 5 metro koadroko balkoia ere, etxea askorentzat lan-lekua delako, umeak edo adinekoak zaintzekoa ere bai, eta balkoiak arnasmuneak dira. Ikuspegi feminista hirigintzan txertatzeko Punt 6 kolektibo katalanaren lana ere, gertutik jarraitzeko modukoa da.



Brutopia: etxebizitza kolektiboak Bruselan.

IKUSPEGI SOZIALA

Auzo elkarteak oso tresna indartsuak izan daitezkeela dio Betoñok: periferian sortu ziren, arazo gehien zituztenak eurak zirelako, eta aldarrikapenak eginez lortutakoa ez da gutxi izan. Hala ere, Betoñok eta Telleriak nabarmendu digutenez, ghettoak saihesteko nahasketa da bidea: Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta etxebizitza sozialak batera egiten dira denak, eta sarri lekuri txarrenetan; horren ordez, bloke berean adibidez planta bat etxebizitza soziala izan daiteke eta hurrengoa pribatua. Etxebizitza kooperatibak ere bizikidetarako soluzio interesgarria izan daitezke (Bruselako Brutopia eta Batzelonako La Borda ekimenak aipatu dizkigu Gortazarrek). Ez bakarrik etxebizitzekin, nahasketa zenbat eta handiagoa izan eraikin eta azpiegitura guztietan, baita auzoaren/hiriaren beraren planteamenduan, orduan eta anitzagoa eta biziagoa izango da kalea. Aldiz, gaur egun dena eremuka dugu banatuta: lana egiteko industrialdeak, erosteko merkataritza-zentroa, aisialdirako gune itxiak...

Bestalde, lorategi eta baratze komunitarioen bidez –eta horien bueltan kultur eta hezkuntza espazioak antolatuz–, auzokideen arteko bizikidetza indartu duen Landahiri proiektua nabarmendu digu Projekta-bikoteak, Colombes hiri frantziarrean.



Herri baratzeak ugaritzen ari dira gurean.

HIRI-BIZITZA

Denentzako kale seguruak ziurtatu behar ditugu, adin eta mota guztietako bizilagunak bilduko dituzten kale biziak, ibilbide eta eremuak ongi atonduz eta bankuak eta gisakoak hobetsiz, inguruko komunitatearen elkargune. Merkataritza gune handien aldean, auzoko komertzio txikia bultzatzea ezinbesteko ikusten dute elkarriketatuek, eta kontsumo taldeak egiten ari diren lana azpimarratu dute, baita gero eta herri gehiagotan ugaritzen ari diren ortu komunalak ere. Badira, halaber, hirigintza kolaboratiboari edota autogestioari lotutako ekimen aipagarriak, bizilagunek eurek sustatu eta martxan jarriak, Errekaleor auzoa kasu.

KULTURA

Kultur areto gehienak barrualdera begiratu dute eta itxi egiten dira kanporantz, “kaxa itxi eta isolatuak dira, kaleari ezer eskaintzen ez diotenak –uste du Telleriak–. Liburutegiak, kiroldegia, kultur zentroak, anbulatorioak... ekipamendu publikoek kalearen jarraipena izan beharko lukete, irekiak, esaterako kristal bidez kanpoan dauden eta barrukoen arteko elkar-zaintza eta segurtasun sentsazioa bermatuz edota patio baten bidez kalearekin bat eginez eta kultur eskaintza nolabait kalera zabalduz”. Betoñok berriz, ondarea zaintzearen garrantzia gogoratu digu eta ondare industrialaren etsenplu bat jarri digu: Donostian, Tabakalera bota beharrean eraberritu egin dute, tabako fabrika kultur gune izatera igaro da. “Beste eztabaida bat litzateke zein arte eredu sustatzen den bertan...”



Haurrak ikastetxera oinez eta euren kabuz joan daitezke, kaleak horretarako prestatuta badaude.

HEZKUNTZA

Ibilbide segurua eta planifikatua adostu, seinaleak jarri eta gero eta herri gehiagotan garatzen ari diren proiektua da: haurrak ikastetxera eskolakideekin joan daitezela, oinez eta taldean, herria deskubrituz, ingurua bizitzeko eta gozatzeko, txiki eta nagusiagoekin batera bidea autonomoki eginez, kalea eta kaleko oztopo eta plazerak euren gain hartuz.

Bestalde, hainbat herri osatzen dute Oinherri Herri Hezitzaileen Sarea, denen artean haurren beharretan oinarritzen den eta horren arabera antolatzen den herria erakitzea helburu (haurrentzat ona den herria, denentzat ona baita): umeekin elkarlanean eraldatutako jolas-parkeak eta guneak dira filosofia horren isla. Txikiak kolektiboak ere, haurren ikuspegia txertatzen du espazioetan, beraien parte-hartzea sustatuz.

HIZKUNTZA

Urteotan bereziki landu da hirigintzak hizkuntzarekin duen harremana. Horren lekuko, Lekarozen egin nahi duten proiektua: 341 biztanleko herrian golf zelaia, hotela eta 228 etxebizitza egitearen ondorio linguistikoak ebaluatu ditu Baztango Udalak eta aurreikusi du euskal hiztun komunitatean ondorio larriak izan ditzakeela. Non begiratu jakiteko, ispilu interesgarria da Gales: ingelesak lehenengo eta bigarren etxebizitzak masiboki ari dira bertan erosten eta horrek galesaren galerarekin harreman estua duela konturatu, hizkuntzaren faktorea oso presente dute hirigintza proiektuetan. Pare bat auzo berri bertan behera utzi dituzte, kalte linguistikoa medio: “Muturreko soluzioa da hori –dio Betoñok–, baina neurri zuzentzaileak ere erabili daitezke: astiroago eraiki, harrera planak hobeto antolatu, hizkuntza eskolak sustatu...”

Basalandareak

ZAPALTZEN DUGUNA ERE JANGARRIA DA

Euskal Herrian 100 klase landare jangarri baino gehiago ditugu, eskura, eta dohainik. Clara Gutierrez eta Leire Albisu adituen eskutik bildu ditugu eta platererako prestatu. Malba, borraja, osinak eta plantaina dira erreportaje honetako protagonista nagusiak.



Irati Sarasua Arabaolaza

@iratisarasua

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Basalandarek eginiko platerak egitea da gure helburua. Horretarako Zumaiara jo dugu, bertan egin baitugu Clara Gutierrez eta Leire Albisurekin hitzordua. Biak dira basalandareetan adituak. Gutierrezek eskainitako ikastaro batean ezagutu zuten elkar eta geroztik basalandareei buruz dakitena elkarri kontatzen diote. Gutierrezek Zumaian duen lursail txiki batera joan gara, eta bertan eman dizkigute landareei buruzko azalpen guztiak. Argazkilariak eta biok harriduraz begiratu diogu elkarri zapaltzen ari garena jangarria dela esan digutenean.

“Hau dohainik da, ulertezina da ondoan dugun hori, bere garaian erabiltzen zena gainera, gaur egun ez jatea”, esan digu Gutierrezek. Euskal Herrian 100 klase landare jangarri baino gehiago daude, eta gure orografia eta klimari esker eremu askotan eta urte osoan zehar aurkitu litezke, bereziki neguan. Gainontzeko urtarotetan ere gure paisaiaren parte dira, baina udaberrian, adibidez, lorea ateratzen zaie hainbati, eta orduan ezin da landare horien hostoa jan. “Pribilegiatuak gara eta ez gara konturatzen”, gaineratu du Albisuk.

Sukalde onenetako berrikuntza

Euskal Herrian, punta-puntako sukaldaritzan ere ekin diote basalandareak txertatzeari, Martin Berasategi eta Andoni Aduriz horren adibide dira. Eta Gutierrezek hori kontatzearekin batera harro esan digu herritarrek harrituta geratzen direla gure lurretako landare gorrotatuenetako batzuk zer diren eta zertarako balio duten jakitean: “Txinako landareen bila ibiltzen dira eta zapaltzen ari denaz ez daki jendeak”. Bere plateretan beti dago basalandare bat, edozein jakiren laguntzaile izan litekeela dio, baita jaki nagusi ere. Nutrizio handiko elikagaiak direla aldarrikatzen du, eta horrexegatik erabiltzen ditu egunero: “Adurizek hartu du fama, baina oraindik ez du erabili litekeen guztia erabiltzen”. Italiarrek guk baino askoz ere gehiago erabiltzen dutela azaldu digute, adibidez.

“Bertako sukaldariak landareak euren plateretan sartzeraz animatzen ari naiz. Baina horretarako nekazariak dituzten landareak saldu behar dituzte, ohitura sortu behar dugu. Landare hauek baserritarrari bere kabuz ateratzen zaizkio, ez du lanik egin behar.



Beste modu batera begiratu behar zaie, orain arte traba zena, aberastasun iturri bihurtu behar dugu, horixe delako”, dio Gutierrezek.



Bost minutuan saskia beteta

Saskia betetzeari ekin diogu; plantaina, malba, borraja eta osinak sartu ditugu barruan. Lursail txiki batera joan ba-

gara ere, landarez beteta topatu dugu, eta berehala bete dugu saskia. Ikusi bezain pronto jakin dute landare bakoitzak zein den, baina kontu handiz ibili

beharra dago. Naturalki ateratzen diren landareak dira basalandareak, eta gure lursailak basalandarez josita egon dira beti; guztiak dira sendabelarrak, baina ez dira guztiak jangarriak. Onddoekin edota perretxikoekin gertatzen den moduan, kasu honetan ere, adituekin hitz egin behar dela azaldu digute, antz handia duten landareen artean pozoitsuak eta jangarriak egon litezkeelako, eta batzuk hilgarriak ere badirelako.

“Basalandareen munduan murgildu nahiko banu, osinetik edo malbatik hasiko nintzateke, plantaina ere jendeak ezagutzen du. Ezin da ezagutzen ez duzun bakar bat ere hartu, zalantzarik baduzu utzi dagoen lekuan”, argi dio Gutierrezek. Batzuk oso erraz nahastu litezke eta horregatik arriskuaren berri eman behar da haren aburuz. Baina nabarmendu dute landare bakoitzak usain ezberdina duela, eta toxikoak diren gehienek usain txarra dutela. “Haurrek usaimen ona izaten dute landareentzat, berehala jakiten dute zein den ona eta zein ez. Txikitan nor ez da ibili landareak probatzen?”, esan du Gutierrezek irribarretsu. Gero, adinean aurrera joan ahala, urrundu egiten garela dio, baina berriro itzultzeko unea heldu dela aldarrikatu du: “Basalandareei buruz informazio asko zuten garai bateko herritarrek, galtzen joan gara, eta orain berreskuratzeari ekin behar diogu, interesa zabaltzen hasi da pixkanaka”.

Plantainaz, malbaz eta osinez lepo

Plantaina Euskal Herrian oso ezaguna dela azaldu digute, sendabelar gisa asko erabiltzen dela, erabilera gutxi galdu dela zentzu horretan. Landareak, sendatzeko edo jateko dugun erabilera ohi-turan ezberdintasun handia ikusten du Albisuk: “Herri guztietan dago sendabelarrei buruz dakien norbait, eta horrek pixkanaka berreskuratzen laguntzen du, baina jakiena ahaztuago dago”.

Malba asko ateratzen da berez. Lehen Zumaia malbaz beteta zegoela gogoratu dute, baina azken bost urteetatik hona zaila dela aurkitzea. Bat utziz gero, oso erraz zabaltzen dela diote, baina guztiak kendu dituztela azken urteotan. Ez dute kentzearen arrazoia ulertzen, eta esan digute euren izugarri gustatzen zaiela: “Oso barazki ona da, proteina asko ditu eta C bitamina ere bai”.

Azkenik, gure inguruan ezaguna den, baina haren ezaugarriei buruz gutxi da-



Asier Bastarrika, Leire Albisu eta Clara Gutierrez.

kigun osinaz hitz egin digute. “Ez gara ohartzen zer altxorra den”, esan digute biek, elkarri arrazoa emanaz. Beste lurralde batzuetan udan hil egiten da, hemen izugarri pila dugu, eta sendagarria da. Gutierrezek infusioak egiteko ere erabiltzen du.

Saskia beteta eta azalpenak jasota, autoa hartu eta Aiara joan gara, Albisuren etxera. Bertan Asier Bastarrika, Albisuren bikotekidea, sukaldean topatu dugu. Mahaian guztia prest du, lanerako: perretxikoak, sagardoa, olibak, arrautzak, zartaginak, platerak... Lau plater egingo dituztela esan digute iritsi bezain pronto. Hartutako landareak eta etxean dituzten perretxikoak arrautzarekin nahastuko dituzte, osinak eta borrajak tenpuran egin, eta plantaina eta olibekin pateaa egingo dute.

Errazak, goxoak eta azkar egitekoak

“Ikusiko duzue zein erraz eta azkar egiten ditugun gaurko plater guztiak”, iragarri digu Gutierrezek. Hasteko, irina eta sagardoaren tenpurarekin osinak prestatuko dituzte.

Lehenik, sagardoa bota du platerera, eta kripe testura lortzeko irinarekin nahastu du. Lodiera egokia duen jakiteko, hosto bat sartu eta estaltzen den ikusi behar da; estali egin behar da, baina ez da oso lodi gelditu behar. Likidoak hotza egon behar du eta burbuilak izan behar ditu, horregatik aukeratu dute gaurkoan sagardoa. Behin tenpura pasatuta, olio oso berotan frijitu, gatz pittin bat bota eta jateko prest dago.

Tenpura berarekin egin dituzte borrajak ere, modu berean. Gorputzeko toxi-

ERREZETAK



OSINA / BORRAJA TENPURAN

Osagaiak:

Olio, sagardoa (burbuilak dituen edari bat), irina eta osin edo borraja hostoa.

Urratsak:

- Uretatik pasa.
- Sagardo hotza irinarekin nahastu.
- Hostoa sartu, eta erabat estaltzen ez badu irin gehiago bota sagardoari.
- Olio oso berotan frijitu.
- Gatza bota.



PATEA

Osagaiak:

Olibak, baratxuria, olio eta plantaina.

Urratsak:

- Guztia irabiagailutik pasatu.
- Ogian zabaldu.

koak desagertzeko ona omen da. “Toxikomanoek desintoxicazio prozesuan erabiltzen dute, buruko mina ere kentzen du, parranda edo bazkari handi baten ostean izugarria da, eta borraja askotan erabiltzen da ohiko medikuntzan”. Gutierrezek dio borrajarekin eginiko salda ohikoa dela bere menuan, eta oilasko zaporea duela, askotan esan omen diote hori.

Patea ere egingo dute. Oliba beltzak, plantaina, baratxuri bat eta olio pittin bat jarri dituzte mahai gainean. Plantaina bakarrik jatea ez omen zaio jende askori gustatzen, zapore gogorre-gia duelako edo, baina azeitunarekin mundu guztia gustatzen zaiola esan digu Gutierrezek: “Ez dut gustatu ez zaion inor ezagutzen, agian zuek zarete lehenengoak!”. Irudia ere oso ederra da, kasu honetan azeituna beltza erabili duenez, iluna geratu da, baina berdearekin are ikusgarriagoa dela esan digu, eta etxean egitera animatu gaitu. Irabiagailutik pasatu du guztia, eta denei eskaini aurretik, ogi zatitxoetan jarri. Amaitzeko, erabili ez ditugun landareak eta Bastarrikak etxean zituen perretxikoak arrautzarekin nahastu dituzte.

Jakien itxurarekin ere harritu gaituzte. Elkarriketa amaituta, eginiko lana dastatu aurretik, argazkilariaren parean jarri dira hiru protagonistak, irribarretsu, eginiko lanaz harro: “Gure desio edo nahia basalandareei buruz dagoen jakituria zabaltzea da, eta jendeak, mundu honetan sartu eta inguruan duguna baloratzea”. Dastatzeko ordua heldu da, eta mahaiaren bueltan eserita, landare bakoitzaren zapore bereziarekin solasaldi goxoan amaitu dugu eguna. ■

EUSKARAZ DAKITEN
ESTABLEZIMENDUETAN
IRUDI HONEN
ANTZEKO
IKUSIKO DUZU

donastian
ere
euskaraz

eta azaroan
lehiaketa!

INFORMAZIOA
ETA
ESTABLEZIMENDUEN
ZERRENDA:



www.donostiaeuskaraz.eus



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua



#ereeuskaraz

“Boluntarioen konpromisoa, ilusioa eta lan eskerga dira ANCK jendearengana heltzeko duen gaitasunaren gakoak”

Galdric Peñarroja (1980, Canet de Mar) Asamblea Nacional Catalanako (ANC) kidea da 2011n sortu zenetik. Idazkaritza Nazionaleko kidea izan da hiru urtez eta, argazkilari profesionala denez, komunikazio lanetan aritu izan da gehienbat. ANCren ikuspegi komunikatiboaren berri emango du azaroaren 10ean Donostian lametzak, ARGIAk eta Ametzagaiñak antolatutako Euskarabildua jardunaldietan.



Axier Lopez
@axierL

La revolució dels somriures (Irrien iraultza). Zergatik jarri diozu izen hori zure hitzaldiari?

Oinarri soziala duen egungo independentismoa azaltzeko erabiltzen den leloa da. Orain gutxira arte independentismoa frankismoaren aurkako borrokarekin, beste herri batzuetako mugimenduekin, eta abarrekin lotuta zegoen. Egungo mobilizazio independentistak oso familia girokoak dira, jendeak ondo pasatzen du, argazkietan barrez agertzen da. Hori da irrien iraultzaren jatorria.

Azpirarratzekoa da ANCren lan komunikatiboa. Zer ezaugarri nabarmenduko zenuke?

Gure lan komunikatiboa estuki lotuta dago ANCK gizartean duen hedapenarekin, gure bazkide eta boluntario kopuru handiarekin, eta beraz, herritarrek mobilizatzeko gaitasunarekin.

Estatutuetan jasota dago izaera independenteari eusteko Assembleak ezin duela diru ekarpen publikorik jaso. Beraz, ANCK baliabide ekonomiko urriak dauzka, baina, kalitate zein kuantitate aldetik, oso aberatsa da ANCren giza kapitala, eta horrek orekatzen du egoera. Beharrezkoa den leku eta egunetan informazio mahaia jartzen duen jubilatua

hartzen du parte, baina baita formakuntza handiko jendeak ere; beren jakinduria eta gaitasuna mugimenduari esku zabalik eskaintzen dizkioten kazetariak, ikus-entzunezko adituek... Horrek eragin du ANCK gain-dimentsioa edukitzea maila komunikatiboari dagokionez. Adibidez, irailaren 11ri begira urtero informazioa eta sustapen aurre-kanpaina zabala antolatzen dugu, material pilo bat sortu eta mugitzen dugu. Lan handi hori bere gain hartzeko prest dagoen jendetzari esker da posible, hori gabe ezinezkoa litzateke.

Komunikazioan bereziki indarra jartzeko apustu politikoa argia da.

Esate baterako, Diadaren harira egiten dugun jarraipen komunikatiboan –ez dauzkat datu zehatzak– egiatan balio ko lukeenaren %5a baino ez dugu gastatzen, lan horietan parte hartzen duen jendetza ikaragarria delako.

Sare sozialetan eragin handia dugu. ANCren Twitter (171.000 jarraitzaile) eta Facebook (177.000) kontuak Katalunian jarraitzaile gehien duten elkarrekin artean daude. Boluntarioen lanari esker presentzia aktibo eta iraunkorra dugu herri askotan eta horrek ahalbidetu digu, adibidez, informazio kanpaina trinkoak egitea independentismoa ahalago dagoen zonaldeetan edota egun-

kari baten milioi erdi ale argitaratzea, banaketan sosik xahutu gabe.

Laburbilduz, boluntarioen konpromisoa, ilusioa eta lan eskerga dira ANCK jendearengana heltzeko duen gaitasun handiaren gakoak. Horrek berezi egin gaitu gainerako talde edo alderdi politikoaren aldean.

Nola dago antolatuta hainbeste lagun?

ANCn era askotako jendea dago. Era-kunde transbertsala da, bide demokratiko eta baketsuak erabiliz independentziaren alde dagoen orori irekia dago.

Lurralde mailan oso hedatuta dago. Kataluniako herri eta auzo gehienetan ANCren talde bat dago. Taldeak autonomoak dira egoki deritzen kanpaina abiatzeko. Hauteskunde bidez hautatuko 77 lagunek osatzen dute idazkaritza nazionala. Horiek gehi borondatezko zenbait kolaratzailek komisiotatik egiten dute lan: komunikazioa, mobilizazioa, harreman politikoak, nazioarteak, eta abar. Arlokako asanbladak ere badira, horietan eremu zehatzak lantzen dira: independentziaren aldeko migratzaileak, langileak...

Nazio mailako ardurek urtebeteko hiru agintaldiko muga izan dute. Aurten bi urteko bi agintalditara luzatu da. Ordainpeko 20 langile dauzkagu, ANCren tamaina kontuan hartuta, gutxi dira.



Zeintzuk izan dira ANCren kanpainarik eraginkorrenak?

Ezbairik gabe, ekimen nagusia Diada da, nazio mailan eta nazioartean duen proiektzio handiagatik eta gure eskaera zehatzak irailaren 11ren bitartez jakinarazi ditugulako. Maiatzean hasten gara mobilizazioa antolatzen eta horren arabera prestatzen dugu Asamblearen urteroko lana.

Lehenago aipatutakoez gain, beste kanpaina indartsu batzuk ere egin ditugu. Esate baterako, Katalunian arazo handia daukagu RENFERen tren sarearekin. Oso inbertsio txikia du eta ia egunero arazoak sortzen dira. RENFEko geltokietan informazio banaketa masiboak egin ditugu estatu propio bat izateak arazo horri aurre egiteko eskaintzen dituen aukerak azaltzeko.

Nola antolatzen da Europako manifestazio politikorik handiena?

Gogo handiz (barreak). Hori da azalpen posible bakarra. Mobilizazio erraldoia da eta jende askoren beharra du. 'Marroi' gehien duen koordinatzailetik hasita, suertatzen zaion tokian ur botilak banatzen dituen boluntariora arte, ardua handiz jokatzeko du jende guztiak. Eta horrexegatik ateratzen da aurrera. Lan guztiak deszentralizatu eta unitate

Galdric Peñarroja (erdian) Gigafotoren aurkezpenean, Espainiako Estatuak inputatu duen Kataluniako Parlamentuko presidente Carme Forcadellekin batera.

txikitzen zatitzen dira funtzionamendua azkartu eta hobetzeko

Maila ekonomikoari dagokionez, adibide batekin azalduko dut. 2014ko Diadan guk diru gutxiago xahutu genuen Sociedad Civil Catalanak (independentziaren aurkako eta Espainiako batasunaren aldeko taldea) urte bereko urriaren 12an Plaza Catalunya ehunka lagun besterik bildu zituen elkarretartzean baino.

Eta, komunikazioari dagokionez?

Gure ikuspegia hau da: denak kontaktatu eta mezu bana izan behar du, baina horrez gain, ondo erakutsi behar da. Eta egoki erakusteko ezinbestekoa da ziurtatzea hedabideek, datozen lekutik datozela, irudiak erraz har ditzaketela, ongi informa dezaten. Eta jakina, guk geuk ere gai izan behar dugu guk antolatutakoa ondo erakusteko. Horregatik irailaren 11 guztietan animaleko jarraipen informatibo propioa egiten dugu, argazki, bideo, sare sozial eta streaming bidez.

Adibide bat jarriko dizut. Diadetan nazioarteari begirako telebista emanal-

di bat egiten dugu, irudiak moldatu gabe eskaintzen ditugu, Creative Commons lizentziarekin, edonoren eskura jarritz. Horri esker, nazioarteko telebista guztiek erabiltzen dituzten irudiak guk grabatutakoak dira.

Berritasun teknikoei ere denbora eskaini diezue.

Formatu berritzaileak erabiltzen saiatzen gara, bai. 2013ko *Via Catalana Gigafoto* egin genuen, 400 kilometroko giza katearen irudi erraldoi bat, 800 argazkilarik egindako 107.000 argazkiz osatua. 2014an Ortofotoa izan zen, *Google Maps*en tankerako airetik argazkia. Eta 2015ean 360 gradutan grabatutako bideo bat, mobilizazioa puntatik puntara ikusteko aukera eman zuena.

Hain formatu handiak erabiltzeko arrazoi nagusietako bat izan da, *Gigafoto*aren kasuari erreparatuz, ibilbide osoan zehar jendea egon zedin bermatzea, lagunak gabeko tarterik ez geratzeko. Metroz metro kateari argazkiak egin izanak ahalbidetu zuen argazkia egingo zuen norbait eta argazkian agertzeko baten bat egotea beti ibilbideko tarte guztietan. Hala munduari erakutsi genion *Via Catalana* hasieratik amaierara arte jendez mukurua zegoela.

Sei hilabete aurre-produkzioan, 45 minutuko lana *in situ*, eta postprodukzioarako beste sei hilabete behar izan genituen *Gigafotoa* osatzeko.

ikasturte politiko hau erabakigarria izango da erreferendumaren iragarpena dela eta. Zein izango da ANCren ekarpena?

Aurten badugu inoiz gertatu gabeko zerbait: Parlamentuan gehiengo independentista, oso helburu argiak dituen bide-orri independentista garatzeko prest dagoena.

Estatuko erasoaldia askoz zuzenagoa eta sinpleagoa izaten ari da. Batetik, gustuko ez duten Kataluniako lege oro indargabetzen ari dira, zezenak torturatu eta hiltzeko debekua edo berdintasuna legea; askotarikoak dira indargabetutakoak. Bestetik, erasoaldi judiziala dago. Generalitateko presidente ohia, zinegotziak eta Parlamenteko presidente Carme Forcadell inputatu dituzte. Forcadell epaitu nahi dute herritarrok boza ematen uzteagatik. Hori bezalako astakerien bitartez Espainiako Estatua bera bilakatu da independentziaren aldeko pedagogia lan onenaren egile.

Orain gutxira arte Assemblearen lana izan da Generalitateari eta Kataluniako ordezkari publikoei independentziara heltzeko eskaerak egitea, prozesua abiatzea edo erreferenduma egikaritzea kasu. Parlamentuan gehiengo independentista lortu ostean, egun ANCK laguntzaile rola hartu du bere gain; bide-orri independentistatik eratorritako ekimenei babesa ematen die, eta era berean, Espainiako Konstituzio Auzitegiak indargabetutako legeen aurrean salaketa publikoa egiten du, baita inputatutako hautetsi publikoak babestu ere.

Bost urte "historiko" bizi ostean zein da independentismoaren sentsazio orokorra?

"Puxika independentista husten ari da" lehen segundotik kobazulo mediatikoa barreiatzen aritu den ideia da. *Salvame Deluxeren* estiloa du beren diskurtsoak. "Hau izugarri gaizki dago", "Diada honek ez du ezertarako balio izan, "gero eta gutxiago dira"... eta horrelakoak. Zorionez, baldar xamarrek dira. Egin kontu, 13TVkoak izan ziren *Via Catalana* arrakastatsua izan zela berretsi zutenak. Bi

helikoptero alokatu zituzten giza katea jendez betetzeko zailagoak omen ziren tarteak airetik grabatzeko. Hutsunearen bila joan ziren eta azkenerako, arrakastaren kanpoko-egiaztapen bilakatu ziren.

Errealitatea ez da adore falta, kontua da independentzia berehala deklaratzeari nahi dugula. Orokorrean jendeari gustatuko litzaioke hau dena dagoeneko konponduta egotea. Azken batean, "arazo" honen erroa oso sinplea da: bozkatu eta erabaki ahal izatea. Orain dela hiruzpalau urte manifestazio masiboek 'subidoia' eragin zuten, eta "hau egina dago" askoren buruan geratu zen, baina prozesua ez da uste genuen bezain azkarra izan.

Alde baikorra da prozesua bilakaera izaten ari dela. Ez dago geldirik, ezta atzera egiten ere, jakina. Urtez urte bidea argitzen ari da. Gainera, prozesua bera luzatu izanak ere lagundu du Espainiako Gobernuaren jarrera egoskor eta ez-demokratikoa agerian uzten. Prozesuaren arrakastari hauspoa eman dio.

Egun zerumugan egiazko galdeketak lotesle bat agertzen zaigu. Norabide egokian ari gara. ■

AULKIA



KARPAK

**AULKI
MAHAIE
ALOGERA**

**ESZENATOKIAK
HESIAK
JANARI ZERBITZUA**

943 473 488

www.aulkia.com

HARKAITZ CANO & MURSEGO

AZAROAK
IGANDEA

20 | 19:00^{tan}

“PORTO”



PAGOA

KAFE ANTZOKIA

OIARTZUN

berria
antza  **ARGIA**
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

A: 8€ T: 12€

Oiartzun: Amazkar, Elorsoro,

Pagoa Kafe Antzokia

Donostia: Donosti Rock

Errenteria: Arkaitza Taberna

Internet: Colectivia, Mauka (berria)

eta www.ticket.kutxabank.es

Pagoa Kafe Antzokia:
Irekia:
ostirala, larunbata eta igandea
17.00tik aurrera

Erreserbak: 619 421 153

@PagoaAretoa

kafeantzokia@pagoa.eus

PAGOA

Euskal Herri berriko
artisauei garagardoa



Egia Euskaraz
eta gero,
Hernanin eta
Lasarte-Orian

NIK EUSKARAZ EGINGO DIZUT



*Ixiar Pagoagaren
ustez oso
garrantzitsua da
jendeari ondo
begiratzea, ulertzen
ez badu mantso
errepikatzea
eta euskaraz
erantzuteko gai ez
bada gaztelaniaz
erantzuten uztea.*

Ixiar Pagoaga Hernanin bizi da, Saioa Larruskain Lasarte-Orian. Lehenengoak *Hernanin Euskara Ari Du* egitasmoan hartu du parte eta bigarrenak *Baietz 40 egun euskaraz* erronkan. Egitasmoen izenak izen, biak gisa berean ibili dira astebetetz: paparrean txapa jarri dute herrikideei adierazteko euskaraz egin nahi dutela eta egingo dutela. Sekula baino gehiago egin dute euskaraz eta sorpresa politik hartu dituzte.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Ixiar Pagoaga, “Denek esan didate euskaraz gehiagotan egiteko, eta nik baietz”

Zein bizipen utzi dizkizu astebeteko tar-teak?

Atzo [urriaren 26an] egun oso polita eduki nuen. Ospakizun bat neukan eta 40 urtetik gorako hiru bikoterekin egon nintzen. Esan nien: “Badakit ikasten ari zaretela. Egingo dugu saiakera bat, lehenengo ordubetea gutxienez dena euskaraz? Pazientziarekin egingo dizuet, eta zuek erantzun ahal duzuen bezala”. Ze esperientzia ona! Ez zen dendara joan eta erostea, bizitzako gaiak ateratzen ziren eta gainera atzerritarrak ziren batzuk, etorri berriak. Eta esan nuen, ostras!, askoz gehiago daukagu egitea. Eskertu egin zidaten, eta esan zidaten horrela egingo balu jende guztiak haien euskara maila hobea izango litzatekeela.

Hain polita ez den gertaerarik izan al duzu?

Denda batean gauza desatsegin bat ikusi nuen. 5 urteko umetxoak erdaraz egin zion bere amaxori eta dendariak “euskaraz!” esan zion era txarrean. Ez nintzen ausartu ezer esaten, baina amorrua eman zidan. Ez zitzaidan egokia iruditu. Goxo esanez gero denak balio du, baina agindu moduan, eta ume bati... ezta bere amari edo aitari ere.

Orokorrean esperientzia ona, beraz.

Sorpresa ona izan da. Mantso eta lasai joanda, eta jendeari ondo begirata, askoz ere gehiago saiatzen dira.

Zer esan nahi du “ondo begirata”?

Bere aurrean jarri, eta keinuren bat egiten badizute ulertuko ez balute bezala, zuk esan: “Berriz esango dizut”. Ez da esan behar, “euskaraz!”, baizik eta “aupa, goazen!”. Eta ondo begiratu, zeren berriak egingo dituzte nahi dugu.

Saioa Larruskain
lasarte-oriarra:
"Orain arte
gaztelaniaz egiten
nien batzuei, agian
hemendik aurrera
euskaraz egingo
diet... Ez, ez, horrela
izango da, euskaraz
egingo diet".



Euskaraz hasi eta gaztelaniara pasa beharra ere izango zenuen.

Lau ginen berriketan eta batek euskara gutxi daki. Ordubetera edo ikusi nion, ai, aurpegi bat... eta esan nion: "Mutil aldakutako dugu?" eta berak "Bai, mesedez". Momentu horiek ere politak dira. Eurek ere ikusten dute ni lasaiago ari naizela euskaraz. Denak euskaraz ari ginen eta bera batetik bestera begira, ikusten genuen gauzak galtzen zituela, eta momentu batean pentsatu genuen, "gehiegi da honentzat".

Horrelako probak ere balekoak dira?

Kristoren ahalegina da berarentzat ere, eta ikasten du. Den-dena euskaraz egiten baduzu, taldetik kentzen duzu. Adibide horretan bost hilabete geunden elkar ikusi gabe. Ospakizun baterako elkartu ginen, ezin nuen erabat kanpora atera. Gai da ximpleena jarraitzeko, baina momentu batean galdu egiten da. Neurtu behar dugula uste dut.

Zer utziko dizu astebete horrek?

Ondaretxo bat, berari begiratu eta esateko, entenditzen duzu? Bai? Bada aurrera. Justu zabiltza? Bada erantzun erdaraz. Baina nik euskaraz egingo dut.

Jendearen jarrera ona izan al da?

Bai, oso ona. Denek esan didate, "gehiegotan hau e!" eta nik, baietz baietz.

Malinkera hitz batzuk ikasi dituzu.

Kuriosoa gertatu zitzaidan ginear ama-alabekin. Umeari euskaraz egiten diot beti. Bere amak malinkerez egiten dio, eta esan nion umearekin batera ikasi dezakeela euskara. Esan zidan badakiela esaten "egun on", "kaixo", "zer moduz". Esan nion hurrengo saioan nik euskaraz pixka bat gehiago egingo niola eta berak malinkerez hitzak irakasteko. Haren hizkuntzari balorea eman nahi nion, gureari ematea gustatzen zaigun bezala. Harritu egin zuen nik malinkera ezagutu nahi izateak.

Saioa Larruskain, "Erronkari esker jendea armairutik atera da"

Nola joan da astea?

Oso esperientzia polita izan da. Adibidez, bizilagun batekin topatu naiz eta uste nuen ez zekiela euskaraz. Ikustea nola saiatzen ari den, nola euskaraz hitz egitea nahi duen, niretzat oso polita da. Komertzio edo denda txiki batera joan eta euskaraz egin dut. Lehen ere hala egiten nuen, baina orain txapa dauka paparrean jarrita, eta hori berria da, nahiz eta berak erdaraz erantzun. Lehen euskaraz egin eta gaztelaniaz erantzunez gero agian bigarren aldiz egingo zenion euskaraz, baina berriz gaztelaniaz erantzunez gero gaztelaniara pasako ginatekeen.

"Belarriprest" (berari euskaraz egitea nahi duela esan nahi du) txapak badu eraginkortasuna.

Txibatoa da, badakizu euskaraz nahi duela, mantsoago-edo baina hitz egiten diozu. Dendara zoaz, beti gaztelaniaz egiten duelako gaztelaniaz egin diozun langilearekin topo egiten duzu eta orain txapa darama, "belarriprest" da. Lehen ez zenekien arazoa zein zen, edo euskara maila oso baxua, edo ausardiarik ez zekiena euskaraz esateko, edo euskararekiko jarrera txarra ere izan zitekeen. Orain badakizu zuk berari euskaraz egitea nahi duela, eta berak euskaraz erantzungo dizu edo ez.

Erronka honi esker jendea armairutik atera da. "Belarriprest" [1.916] eta "ahobizi" [958 lagunek adierazi dute "ahobizi" txaparen bidez euskaraz egin nahi dutela] askok eman du izena. Euskaldunberri batzuek "ahobizi"en taldean eman dute izena. Gure txandan neska euskaldunberria zegoen eta "ahobizi" moduan eman du izena bere burua armairutik ateratzeko.

Abenduaren 3tik aurrera, alegia txapa kendutakoan zer?

Pertsonekin dauzkagun hizkuntza ohi-turak aldatzea oso zaila da. Bizipen honen ohi-turak aldatzea bultzatzea eragingo du. Orain arte gaztelaniaz egiten nien batzuei, agian hemendik aurrera euskaraz egingo diet... Ez, ez, horrela izango da, euskaraz egingo diet. ■

ERRETZEA TXARRA DA GERRARAKO



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Palestina, 1917ko urria. Gerraren hasieran Otomandar Inperioaren esku zegoen herrialdean armada britainiarra aurrera egiten ari zen, baina une horretan Gazan trabatuta zeuden, turkiarren defentsa setatia zela eta. Orduan, britainiar agintari militarrek erabaki zuten egoera desblokeatzeko eta turkiarren lerroak hausteko, gudu nagusia ez zela Gazan egin behar, handik 30 bat kilometrora zegoen Beersheba hirian baizik. Beersheba hartuta, Jerusalemera erraz iritsiko ziren. Baina plan bat behar zuten eta zeregin hori Richard Meinertzhagen (1878-1967) inteligenziako ofizialaren eskuetan utzi zuten.


Etsaiek Gaza gotortuari erasoko ziotela pentsatzea nahi zuten; hala, armada nagusia han utziko zuten. Baina lehenik, britainiar tropen artean egon zitezkeen espioi turkiarrak deuseztatu behar zituen. Karta faltsu bat bidali zuen balizko turkiar espioi bati britainiarren alde egindako lana hitzez eta dirutan eskertuz. Aurreikusi bezala, turkiarrek gutuna bidean atzeman eta, beren espioi onena agente bikoitz bihurtu zela sinistuta, exekutatu egin zuten. Ondoren, oihalezko poltsa batean Gazari erasotzeko plan faltsua sartu zuen. Soldadu bat, poltsa hartuta, etsaien lerroetara hurbildu zen zaldiz. Tiroka hasi zitzaizkionean, aurrez zaldi-odolez zikindu-

tako poltsa lurrera bota zuen eta, zauritu zutenaren plantak eginez, handik ihes egin zuen. Dokumentuen arabera, britainiarrek ez zioten Gazari azaroaren 14a baino lehen erasoko; egiaz, Beershebaren erasoari urriaren 31ko data jarria zioten.

Von Kressenstein jeneralak, turkiar armadaren komandante alemaniarrek, atzemandako paperak faltsuak izan zitezkeela susmatu omen zuen. Baina ezin zuen arrisku handiegirik hartu eta turkiar tropak Gazan atxikitzeke agindua eman zuen. Dena den, horrek ez zuen esan nahi Beersheba hustuta zegoenik; Meinertzhagenen planaren bigarren zatia abiarazteko ordua zen.

Harrapatutako soldadu turkiarrek itaunketetan bota zutenek, tabako eskasia zuten. Hala, urriaren 30ean, erasoaren bezperan, hegazkin britainiar batek Beershebako lubaki turkiarren gainetik hegan egin zuen eta zigarreta paketeak jaurti zizkien etsaiei, propaganda mezuak zituzten panfletoei batera (hala, turkiarrek pentsatuko zuten zigarroak oparitzearen helburua propaganda egitea zela). Tabako bonbardaketa baino lehen, Meinertzhagenek opioa lortu zuen merkatu beltzean eta zigarretetan narkotikoa tabakoarekin nahasteko agindua eman zuen.

1917ko urriaren 31n, britainiar armadak, zenbait soldadu australiarren laguntzaz, Beershebari eraso zion eta



Bere biografiaren azalean ikusten denez, Richard Meinertzhagen bera erretzailea zen, baina etsaien zaletasunaz baliatu zen gudua irabazteko.

berehala egiaztatu ahal izan zituzten Meinertzhagenen zigarreten efektuak; turkiarrak ez ziren posizioari eusteko gai izan, gehienak beren buruei zutik eusteko gai ere ez baitziren.

Tabako-zaparrada baino lehen, Egipto eta Palestinako indar britainiarren komandante buru Edmund Allenby jeneralak esan zuen Meinertzhagenen plana "denbora galtzea" zela. Ondoren, Palestina osoa hartzeko funtsezkoa izan zela aitortzea beste erremediorik ez zuen izan. ■



NORTH EASTERN STAR

Txinatarrak Londres erromatarrean

Londresko Museoko ikerlari talde batek II. mendeko hilerri zahar bateko 22 gizakiren arrastoak aztertu ditu eta, eskeletoen morfologiari erreparatuta, horietako bi asiarrak, ziurrenik txinatarrak, zirela ondorioztatu dute.

Antzinako Txina eta Erroma harremanetan zeuden, bi potentziek elkarren berri zuten eta kontsumo-ondasunak

trukatzeko zituzten, baina horren frogarkeologikoak oso urriak dira eta maiz eztabaidatu izan dira. Londiniumen (irudian), inperioaren mendebaldeko muturrean, Ekialde Urruneko biztanleak topatu izanak zalantzak uxatzen ditza. Hala ere, ikerlariak zehurtziaz jakatu nahi dute ADN proben emaitzak jaso bitartean. ■

ARGIA 2017ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz janzteko.

***Ez beldurrik izan
datorrenari...
eskatu orain 2017ko
ARGIAren egutegia.***

Buruketak

Galdetzea libre

Atzokoak gaur

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

Egutegia

50€

9€

Egurrezko
taula
egutegia
opari

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus



Ezpeldoiren kasua



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Amaia Ezpeldoi nola hilko dugun barrundatzen dugun artean, ea ezpelak (*Buxus sempervirens*) nola salbatu asmatzen dugun. Txinatik Alemaniara ekarri eta handik Europa osora hedatu dugun harrak (*Cydalima perspectalis*) mendietako eta etxeetako ezpel guztiak garbituko dituen itxura guztia du, izurrite petral alaena! Gauez baino ibiltzen ez den sits zurizta da, eta umetan har berde-beltz handi samarra, 3-4 zentimetrokoa, erraz ikusteko modukoa. Landarearen zati guri guztiak jaten ditu harrak, eta gizen-gizen egin denean, armiarma-sare tankerako batean bildu eta krisalida sortzen du, gero sits bihurtzeko. Negua igarotzeko, 0,5-1 zentimetroko har ttikiek bi ezpel hosto sendo josten dituzte hariz. Udaberriarekin hazi, eta lehen sits belaunaldia ekarriko dute. Bi edo hiru belaunaldi izango dira urtean, urte eta toki epeletan baita lau ere. Txikizioaren emana edo, gure lagunaren amak esaten duen bezala, txikizio desdetxa!



BÖHRINGER FRIEDRICH-CC BY SA

Txinatik Alemaniara eta handik Europa osora hedatu da Cydalima perspectalis harra, ezpela garbitzen ari den izurritea.

Ezpela kulturaren paisaiaren oinarri den lurraldeetan txikizio hori izugarria da. Paisaia antzematen dugunean landare bat ez ikustea gauza bat da, baina landare hori kultura baten oinarrietako bat bada triskantzari odola dario. Ezpelik ezean, nola egingo dituzte Ezkurran tomateetarako makilak? Aita Oizkoa duen lagun batek hala zioen lehengo astean, kontu honen berri eman nionean: "Ordun, kisulabek berpizten hasi nahi ta ere, nekez beteko ttiu ezpelez..."

Gure ezpelaren kulturaren paisaiaren odol jario hori eteteko harra akabatu behar: *Bacillus thuringiensis*-ekin tratamendua eginez, ur soilez bustitzeak ere garbitzen omen du... Geuk hasi beharko dugu, txoriek ez baitituzte har horiek jaten. Ezpelak badu pozoi tankerako bat, eta, agidanean, ezpela besterik jan ez duen harra ez dute mokatatu nahi. Amaia Ezpeldoi hil beharrean lanean jarri beharko dugu kasu honetan ere... ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo. Kotxinila zuriaren izurriterako tabakoarekin tratamendua egitea aholkatzen duzu. Zigarro edo puruekin egin daiteke, edo belarra behar du izan? Zer proportziotan? Eta bukatzeko: amona mantangorrien larbak erosi ditut, entzun baitut kotxinila eta zomorro txikiak jaten dituztela. Tabako belarraren tratamendua martxan jartzen badut egokia da mantangorriak zabaltzea? Mila esker.

Karlos Larrañegi (Zarautz)

Kaixo Karlos. Nikotina da tratamendurako erabiliko duguna. Beraz, aipatzen dituzun horietako edozein egokia da, zigarro, puru edo belar. Gaur egun hain hedatua den "liatzeko" tabakoarekin egitea oso erraza da. Hau da nire ustez formula eraginkorrena: litro erdi bat alkohol eta beste hainbeste ur nahastu eta 100 gramo tabako sartu. Hamabost bat egunez beratzten utzi. 100 gramo xaboi neutro gogor birrindu eta hamar litro uretan urtu. Tabako ura eta xaboi ura nahastu.

Deskuiduan intsektuak izurrite bilakatu badira, zuzenean nahasketa horrekin tratatu. Erasoari izurrite esaterik ez bada, tratatzeko erantsi beste hogeit hamar litro ur. Intsektuak ez baditu garbitzen, landareak ondo garbitu arte astero tratatu.

Nikotinak intsektu guztiei erasotzen die, baina batez ere harrei, azal ahulena dutenei. Beraz, mantangorrien harrak tratamenduak egin ondoren zabaltzea hobe litzateke.

AINARA AZPIAZU ADURIZ "AXPI":

"Paradisua eman diot Altza Porruri"



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Permakultura, baratze ekologiko, biodinamika eta zero zabor filosofiadun unitertsoa marraztu duzu. Jakobitentzako paradisua da!

Bai, hala da! Naturak berez, guk esku-hartzen ez dugunean, daukan perfektiorako joera irudikatu nahi nuen, horrek liluratzeko nau. Gaur egun atzetik gabiltza beti, hanka-sartzei buelta emateko sistemak asmatzen. Edo asmatu nahian behintzat. Horren guztia beharrik ez den momentua irudikatu nahi izan nuen. Ez dakit paradisuko mundu horretatik gatozen, baina joan, norabide horretan joan behar genuke!

Eman eta Hartu. Zer eman diozu Altza Porruri zuk eta zer hartu duzu bertatik?

Altza Porruri eman? Baratzeko lanak egiteak lanik ematen ez duen paradisuko ekosistema bat. Zaborrik gabea, garbia, ekologikoa, bere kabuz hornitzen dena... Paradisua, ez da gutxi, ezta?

Eta berak niri? Jakobarekin tertulia ederrak izateko beta, profesional handi eta estimatzen dudana jende on askorekin batera lan egiteko aukera, zortzi orriko gidoi bat sortzeko eta garatzeko erronka, nire burua desafiatzeko... eta zorte pixka batekin, Euskal Herrian barrena aurkezpenak egiten ibiltzeko aukera (kar, kar).

Non ibili zara gehiago komiki hau marrazteko prozesuan eredu bila, baratzean edo BBCko animalia dokumentaletan?

Zaintzen (ez) dudana baratze horretan ibili naiz bila, gauzek bere kabuz orekarako joera nola hartzen duten ikusten, naturari begira eta hausnarrean... eta gizon-emakumeen arteko hartu-emantetan. Bide batez, BBC... zer da hori?

Erabili dituzun hitz joko horiek guztiak sortzeko, agian, Euskaltzaindiko liburu artean ere ibiliko zinen...

Euskaltzaindia? Ez, ez, Jakoba bera! Berarengana jotzen nuen zalantzaren bat nuen aldi oro. Eta galdera batekin bi orduko jarioa nola duen, bitan elkar-tzearekin nahikoa eta sobera izan zen gidoia osatzeko. Bera izan da lan honen hirugarren zangoa.

Ez dut jakin zer barazki den liburuaren aurkezpenean irudikatzen zaituena... Marrubia? Patata?

Uix, horiek Asiskoren kontuak dira, neronek ere ez dakit eta! Berak alberjinia naizela dio baina... Hurrengo libururik balego, ea erretratuak egiteko aukera niri ematen didaten... ■



ALTZA PORRURI

Irribarrearen baratzea

Marrazkilariak:

Asisko, Unai Iturriaga, "mattin" Martiarena, Ainara Azpiazu, Antton Olariaga, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

t @bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

© 943 371 545 · www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIK

Azaroak 12: Maule

15:00etan Mediatekan, Altza Porruri komikihitzaldia: Jakoba Errekondo, Asisko Urmeneta, Joseba Larratxe eta Ainara Azpiazu "Axi"ren eskutik.

Azaroak 15: Zerain

19:00etan (lekua zehazteke), Altza Porruri komikihitzaldia: Jakoba Errekondo eta Antton Olariagaren eskutik.

Azaroak 23: Larraul

19:00etan Kultur Etxean, Bizi Baratzearen aurkezpenean.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · © 943 371 545

GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

SIMAUERRAREN KONPOSTAJEA

2

Simaurraren konpostajeaz ikasteko gida

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak argitaratutako Simaurraren Konpostajea Nekazaritza ekologikoan gida-liburua dugu zozketa-gai hilabete honetan ARGIAko kideen artean. Gidaren helburua lurraren eman-kortasuna modu naturalean bermatu nahi dutenei simaur egokiak ezagutu eta hauek konpostatzeko eta erabiltzeko era azaltzea da. Hiru zatitan banatzen da: maneiu ekologikoaren aldetikongarri organiko onargarrienen inguruko informazioa, zergatik eta nola konpostatu azaltzeko pistak ematea eta bertako lurren eta laboreen ezaugarrien arabera konposta nola erabili azaltzen dituen atala. Argazkian, Amorebieta-Etxanoko Jauregibarrian aurten zabaldutako Nekazaritza Ekologikoaren inguruko erakusketaren inaugurazioa ikus daiteke.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



EUSKADIKO NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOAREN KONTSEILUA

Tel: 946 271 594
www.eneek.org / info@eneek.org

#iraunkortasuna
#elikadura-burujaibetza
#lurraldetasuna

Hilabeteko honetako sariak

1



Tribial Feminista mahai jolasa
2 joko

2



Simaurraren konpostajea
2 liburu

3



Skakeitan taldearen abenduak
Seko Durangoko kontzerturako
5 sarrera

4



Altza Porru liburua
3 liburu

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | guinea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



HARPIDETZA KOLEKTIBOAK

Ongi etorri familiara, Elorrioko Gaztetxea



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Asanblearioak. Horiekin egin dut topo oraingoan. Polita omen litzateke harpidedun berriren bati elkarrizketa egitea, eta Elorrioko Gaztetxearen izena bota didate. E-mail bat daukat eskuartean. Ezagun dut gehienetan posta horiek nola funtzionatzuten duten, eta erantzun azkar samarra nahi banuen bide zuzenagoren bat eraginkorragoa izango zela pentsatuta hasi naiz gaztetzeko partaideren baten bila. Lortu dut kide batekin hitz egitea, eta esan dit oso gustura erantzungo dituztela gure galderak; baina asanbladan hitz egingo dutela horretaz, berak ez didala erantzunik emanago aurretik taldean erabaki gabe. Eta zer egin behar nion nik, gehiago sakatu berak momentuan erantzun ziezadan? Hala, beraz, gaztetzeko asanblada egin eta erantzun kolektiboa zehaztu zain geratu nintzen.

Pare bat hilabete izango dira Elorrioko Gaztetxea ARGIAko harpidedun egin zela. Baina zergatik? “Gertuko euskarria” egiten zaiela argudiatu digute, “gazteen problematikei begira egiten diren lanketak” gustatzen zaizkiela... ikusirik asanbladako hainbat kidek be-

ren kasa eguneroko albisteak ezagutze-ko argia.eus-era jotzen dutela, euskarri fisikora saltoa ematea planteatu dute. Baina noski, harpidedun egitearen erabakia ere asanblearioa izan da, gaztetzeari dagozkion beste erabaki guztiak bezala. Ez da, ordea, azken hilabeteetan egin duten harpidetza bakarra. Udan egindako bilera batean aldizkariaren eta egunkariaren beharra ikusita hartu zuten ARGIAren bezala beste harpidetza batzuk egiteko erabakia. Horrela, aldizkariaren apalean izaten dute gaur egun ARGIA, eta baita gaztetzeko barran bertan ere, norbaitek irakurri nahi izanez gero eskuragarri izan dezan.

Zergatik ARGIA galdetzean ederra da entzutea “informazio sinesgarria” ematen duelako aukeratu dutela. Eta ederra baita ere (interneten geroz eta gehiago ibiltzen banaiz ere euskarri fisikokoa izan naiz beti) aditza teknologiararen eta abiaduraren mundu geroz eta azeleratuago honetan gazteek baliagarri dutela papera, eta lotzen dutela gainera kolektiboarekin, bakoitzak bere aldetik interneten kontsumitu beharrean guztion artean gaztetzeko kontsumitzearekin. ■

“Kalitate handiko aldizkaria da ARGIA. Azkenaldiko berrikuntzak ere oso egokiak eta interesgarriak izan dira. Oso gustura irakurtzen dut eta pozik nago proiektuaren sustatzaile izatearekin”

Regina Tolosa Agirrezabala,
ARGIAko

Euskarari buruzko bloga ARGIAra ekarri du Txerra Rodriguezek

Euskara eta soziolinguistikari buruzko Txerra Rodriguezen blog erreferentzialak 10 urte bete ditu. Eduki guztiak ARGIArekin partatu ditu orain, beraz, argia.eus webgunean irakurri ahal izango duzu aurrerantzean *Garaigoikoa* bloga.



Proposatu ARGIA Sarietarako hautagaiak:

Bidali helbide honetara (harpide@argia.eus) alor hauetarako hautagaiak: ikus-entzunezkoak, irratia, internet, prentsa, komunikazio ekintza eta me-rezimenduzkoa. ARGIAko lantaldean osatzen dugu epaimahaia, eta zuek bidalitako hautagaiak zuzenean zerrendara sartzen ditugu.

AGENDA

Azaroa ARGIA izango da Gasteizen egitaraua (ekitaldi denak Oihaneder Euskararen Etxean izango dira, 19:00etan):

- Azaroaren 24ra arte *Trantsizioak* erakusketa ikusgai.
- Azaroaren 11n, SolasALEA elkarrizketa irekia Jone Goirizelaiari.
- Azaroaren 16an, Garoña behin betiko itxi? Demokrazia energetikoa eta energia sozialak. Solasean Aitor Urresti (EHU) eta Patxi Alaña (Garoñaren Kontrako Foroa).
- Azaroaren 22an Zitzadak dokumentala eta solasaldia: Zigor Olabarria (Lurralde Askea) eta Saioa Iraola (Bilgune Feminista).

Idazletza eta prekarietatea

TOKI PIXKA BAT IDAZLE GEHIAGORENTZAT

Gazte zara gazte, literatura zale, zer edo zer idazten duzu, baina inor gutxi duzu inguruan zure lanaz iritzi kritiko bat ematen dizunik. Beka deialdietan eta sariketetan saiatu izan zara, emaitza handirik gabe. Gazte zara gazte, literatura zale, segi nahi zenuke idazten, baina gero eta testu gutxiago gordetzen duzu kaxoian.



Kepa Matxain

@kmatxain

Hamar dira helduentzako literatura liburu bat argitaratu duten 30 urtez azpiko euskal idazleak: Alaine Agirre, Itxaso Araque, Amañur B. Blasco, Hedoi Etxarte, Gari Irazusta, Anartz Izagirre, Gorka Salces, Danele Sarriugarte, Garazi Ugaldede eta Samara Velte (Kattalin Miner, laster). Agirre, Blasco, Etxarte, Irazusta eta Velte kenduta, gainontzeko bostak beka edo sari baten bidez atera dira plazara –Irazustarena, berriz, autoeditatua da–. Bestalde, 20 urteko aldea dago hemen izan diren azken bi literatura banden artean –1993an manifestatu zen Lubaki Banda, 2013an bota zuten iepa-kaixoa ITU Bandakoek–. 20 urte, beren udazkeneko orbel eta guzti, 7.306 egun, beren ilunabar malenkoniatsuekin, literatura egiteko jarraikortasunez elkartu diren azken bi gazte-taldearen artean –*Vladimir* aldizkariakoak edo Kevin Heredia defuntua salbatu daitezke agian–. Zerk batzen ditu bi datuok, pentsa lezake inork, zertarako aritu kiribila kiribiltzen, funts handirik gabeko loturetan aztarrika, balizko krisialditxo bat iradokiz, noiz eta orain, euskal literatura Marino Jaizkibelen gora baino osasuntsuago dabilen honetan.


Demagun, ordea, datu horien atzean badagoela aztergai interesgarri bat, badaudela aletzeko moduko arrazoiak, eta, ikerlari trebatu hark nola, galderari buelta ematen diogula: zer dela eta hasiko da egun gazte bat, lanetik leher egin da etxeratu, entsalada zarpail bat irentsi, kafe kikarari zanga bat eman, ordenagailuaren aurrean jarri eta, konparazio baterako, nobela gotor bat idazten (salbu eta ez duen naturaz gaindiko barne indarra, edota literatura funtzio terapeutikorako erabiltzen?), Ramon Saizarbitoriak esana du –eta *Ustela*, *Oh! Euzkadi* eta garai hartako literatura aldizkarietan aritutako gazte askok sentitu izan dute antzera–: hastapenetan, inguruan talderik eduki gabe idazteak ez zukeela zentzurik izango. Taldeko guztien artean herriaren alde zerbait egiten ari zirela konturatzeak motibatzen omen zituen idazten segitzera. Zer gertatzen da, ordea, Lubakiko kanatsuen eta ITUko azal leunen arteko bi hamarkadetako arima bakartiekin? Zergatik itsatsaraziko dituzte ipurmasailak eserlekura ordu luzez, literaturari erabat emanak? Euskal kulturaren alde? Nazio eraikuntzan beren hondar alea jartzeko?



IKEAko aitzakiak, esango du norbaitek, arrazoi handiz. Bai, idazteko zinezko gogoia duenak berdin topatuko du horretarako astia eta modua atzo, gaur edo San Fermin egunez. Baina hemen mahai gaineratu nahi den auzia beste bat da: panorama horretan, ea literaturgintza probatu nahi duen gaztearentzat baldintza egokienak ote diren egungoak, edo, bestela esanda, baldintzak bestelakoak balira, ez ote legokeen literatura mugimendu sendoa go bat gazteen artean. Edo hirugarren modu batera planteatuta: ba ote dagoen borondaterik gazteen literaturgintzarako jauzia pixka bat kolektibizatzeke, irabazle bakar bat (eta galtzaile asko) onartzen duten beka eta sarien egungo eredia gainditu eta bestelako formulak asmatzen hasteko.

Feedback falta

Itzul gaitezen Saizarbitoriaren hitzetara: “(Sariketena) oso gai serioa da, zeren, norbait saritzen den bakoitzean,



Gerta daiteke deialdietara aurkeztu eta puska batean saririk jasotzen ez duen gazteak etsi eta literatur asmo oro betiko baztertea.

beste batzuk uzten dira saririk gabe". Pelloren egia ematen badu ere, esaldiak badu mamia, zer esanik ez sariketa horietan parte hartzen dutenak gazte hasiberriak badira. ITU bandako Itziar Ugartek adierazi du berriki: "Gazteoi askotan argitaratzeko gelditzen zaigun bide bakarra lehiaketetan aurkeztea da, eta gero, horien bitartez, argitaletxeetarako saltoa egitea. Sistema horrek, lehiakortasuna sortzeaz gain, testu asko kaxoian gordeta uztea dakar. Horregatik sortu dugu *Lekore*, gazteon testuak libreki argitaratzeko espazio bat behar genuelako". Horixe, *Lekore* aldizkaria, funtsean: egun dauden joko araei aurre egiteko saiakera bat.

Bekak eta sariak aho biko ezpatak dira, idazteko zaletasuna eduki bai baina sekula deus argitaratu ez duenarentzat: irabaziz gero, norbere lehen lana argitaratzeaz gain, aurrerantzean idazten jarraitzeko akuilu izan ohi dira. Aldiz, gerta daiteke deialdietara aurkeztu eta puska batean saririk jasotzen ez

» **EKAITZ GOIENETXEA:**

"Literatura lehiaketek badaukate alderdi hori: baztertzailak dira. Niretzat ankerrena aipamenik ere ez jasotzea izaten zen. Ez nekien testu hark inolako balio literariorik ote zuen ere"

» **MIKEL PERUARENA:**

"Sarien tresna motz begitantzen zait, eta trabagarri"

duen gazteak etsi eta literatura asmo oro betiko baztertea. Ez, ziur asko, sariekin edota argitaratzearekin itsututa zegoelako, ez bere burua egunkariko kultur orrialdeetan irudikatzen zuelako, opera prima besapean eta titular arranditsuak jaurtikiz. Literaturatik alden-duko da, batez ere, ez duelako topatu –gertuko adiskideez gain– bere lanaren *feedback* emango dion inor, deus gano-razkoa, txarra edo mediokrea egin ote duen argudiatuko dion inor, eta, besterik ezean, irabazi ez dituen bekek eta sariek bete zezaketelako funtzio hori –eta, noski, erantzunik eza ulertu duelako erantzunik eza ulertu ohi den bezala–.

Sumatu izan du *feedback* horren falta Ekaitz Goienetxeak –berriki Igartza Saria jaso duen bermeotarrak–. Orain bi urte Gabriel Aresti ipuin lehiaketara bi lan aurkeztu eta biak saritu zizkieten. "Ipuinetako zaharrenak, beste lehiaketa batzuetara aurkeztu arren, ez zuen inoiz aipamenik txikiena ere jaso. Ordura arte ikusezina izan zen. Literatura lehiaketek badaukatelako alderdi hori ere: baztertzailak dira. Niretzat ankerrena aipamenik ere ez jasotzea izaten zen. Ez nekien testu hark inolako balio literariorik ote zuen ere. Ondo legoke gutxienez testu iruzkin labur bat jasotzea epaimahaikoengandik, hobetzeko ezer ikusi duten, zer gustatu zaaien eta zer ez, gomendiorik ote duten". Hutsune horri erantzuteko modua bururatzenean: literatura lehiaketetatik aparte, irakurle kritikoaren sare bat sortzea, edozein idazle hasiberri –edo ez hain hasiberri– bere lanak bidali ahal izateko. Bide batez, Goienetxeak gehitzen du: "Bost urteko aldea dago Gabriel Aresti lehiaketara bidali zituen bi ipuinen artean: zaharrena idatzi ondoren, bost urte behar izan nituen ipuin berri bat idazteko".

Idatzi, diruagatik

Hemen eta orain bada euskarazko literatura diruagatik idazten duenik. Paradoxikoa, baina horra beka eta sariketa ereduaren beste albo ondorio bat: teoriarik literatura idaztea gustuko dutenei beren zaletasunean laguntzeko sortu diren arren, gerta daitekeela –zer esanik ez garai estuotan– diru-sariaren karmeluagatik ez balitz sekula ezer idatziko ez lukeen jendea suertatzea irabazle. Irabazlearen partetik erabat hautu zilegia, esan gabe doa, baina ez du ematen

sarion helburuarekin bat egiten duenik. Alegia, literatura idatzi nahi duten gazteei bultzada emateaz ari bagara, sarien eta beken egungo formula agian ez dela eraginkorra.

Goienetxeak –literatura zale sutsua izanagatik– idatzi izan du diruagatik. Gabriel Aresti lehiaketarako bigarren ipuina prestatzeko lana hartu zuen, langabezia zegoelako eta diru sarrera bila zebilelako: “Erredaktorea naizenez, horikusi nuen aukera bat, probatzeak kalterik egingo ez zidana. Han eta hemen lan egitera ohitu garenok adi egoten gara beka deialdietara, lehiaketetara edo laguntzetara. Hori ere bada ‘lana’ lortzeko modu bat. Bakoitzak bere arloan. Eta nola nik erredakzio lanetan eskarmen-tua eta sormen apur bat baditudan, literatura deialdietara aurkeztera ausartu nintzen”.

» RAMON SAIZARBITORIA:

“Seguru nago sari literarioetan eta gauza ez hain beharrezkoetan gastatzen duten diru kopuruarekin, dozena bat idazle, beste egitekorik gabe, beren produkzioari emanak bizi ahal izateko adina izango genukeela”

Sarietan, bederen, testu literarioa hartzen du aintzat epaimahaiak. Beketan, oster, pisu handia har dezakete literaturaz gaindiko arrazoiek, proiektua saltzeko duzun abileziak, adibidez. Hala bizi izan du Goienetxeak: “Aurkezten duzu proiektu bat, defendatzen duzu gai izango zarela proiektu hori garatzeko, argudiatzen duzu gogoan epaimahai limurtu behar duzula jakinda... Eta zu hautatzen bazaituzte, orduan hasi behar zara lanean. Aurten eman dizkidaten bi beka horietan, zalan-tza sortu zait ez ote den izan proiektu bat ondo argudiatzeko gaitasuna garatu dudalako publizitate arloko esperientzia urteetan”.

Onurak kolektibizatu

Gainontzean, ez da erraza formula baliagarriak zehatz-mehatz proposatzea, baina ze norabidetakoak behar luketen argi samar dago. Oro har, sariketei buruz askotan aipatu diren kontuek berdin balio dute gazteentzako beka edota sarientzat ere. Aspaldikoak dira lehiaren –eta idazle gutxi batzuk hauspotzeko formulen– aldean onuren banaketa kolektiboago bat defendatu duten ahotsak. Sakoneko ideia batek batzen ditu proposamenok: egun, hemen, artista gehienek sariketa- ren bat edo beka deialdiren bat irabazi arte modu prekarioan sortzea beste aukerarik ez dutela, eta hori irauli beharra dagoela, deus sortu nahi duenari prozesuan bertan lagunduz, ahalik eta baldintza duinenetan aritzeko aukera izan dezan –antzerkian, esaterako, gero eta konpainia gehiagok defendatzen dute formula hori–. Ez da atzo eguerdiko aldarria. 2001ekoak dira Saizarbitoriak Euskal Idazleen Elkarteari buruz esandakoak: “Seguru nago sari literarioetan eta gauza ez hain beharrezkoetan gastatzen duten diru kopuruarekin, dozena bat idazle, beste egitekorik gabe, beren produkzioari emanak bizi ahal izateko adina izango genukeela”. Gaineratzen zuen: “Serio hartzeko gaia litzateke hau, baina kontua da idazleok garen bezalakoak garela eta ez dugula hartuko”.

Antzeko oihartzunak suma zitezkeen, orain urtebete, Mikel Peruarenak Euskadi Sariaren ukoa azaltzeko bere blogean argitaratutako testuan. Honek –testuingurua zena izaki– administrazio publikoa jarri zuen jo puntuan. Iruditzen zitzaion lehiatik aterata badirela literatura produkzioa, sormena eta egileak sustatzeko bestelako bideak: “Sarien tresna motz begitantzen zait, eta trabagarri”. Gainera, defendatzen zuen literatura lehiaketak beste era batera egin daitezkeela, eta, adibidez, sari bakarra eman beharrean urtean argitaraturiko dozena bat edo dozena erdi bat liburu nabarmentzea egokiagoa litzatekela, “liburu horiei ezinbestekoa zai-gun kritika bat eginez, gainera”. Testu berean, aipatzen zituen diru publikoa- rekin sormena sustatzeko beste tresna batzuk: adibidez, sortzaileentzako estatutu fiskal bereziak sortzea edo pizgarri fiskalak sortzea: “Demagun, aurten liburu argitaratuko duten egileei, zerga deklarazioa egiterakoan, hainbesteko diru bat itzultzea. Edo langabezia direnen-

tzako laguntza bereziak sortzea”. Gazteei bideratutako literatura beka guztiz publikorik ere ez dago egun.

Ainhua Larrañaga Euskadi Literatura Sarietako epaimahai izan da azken urteotan. Hark ere aipatzen du kultur sorkuntza sustatzeko beken eta sarien formulatik harago joan beharra dagoela. Traba handi bat ikusten du horretarako, ordea: “Guk ez daukagu estatutik, eta, ondorioz, kultura babesteko tresna sendorik. Literatura sariak edo antzeko beste hainbat ekimen ditugu, baina administrazio subalternoa den heinean, horraino baino ez gara iristen”. Pentsa daiteke, beraz, neurriok martxan jartzea ez dela dirudien bezain erraza, eskuak loturik dauzkagula, bi estaturen menpe gaudenez gero. Panorama horretan, saia gintezke dauzkagun esku- menak gutxienez kultur sorkuntzarako ekimen demokratikoagoak bultzatzeko erabiltzen, edo bestela, horrelaxe segi, eta auzi hau ere estatu propioa lortzean aldatuko diren gauzen itxarongelara bidali. Independentziaren biharamunean sekulako nobedadeak espero dira herri honetan. ■

11itzulpen

**EUSKARATIK
INGELESERA
ZUZEN**

**INGELETIK
EUSKARARA
ZUZEN**

<http://www.11itzulpen.eus>

info@11itzulpen.eus

Skype:

11itzulpen (34) 699 433 121

80 URTE GEROAGO NOLA EGITEN DUGU BERTSOTAN?



*"Nere aipamenak izango dira
beste 80 urtian".*

Artistaren kontzientziaz jarri zuen bertso sorta ezaguna *Txirritak*: bere lehen plaza eta orduko kantu-lagunak historiara pasa zitezen. Azken puntu horrek ere egin du bere lana, hil zela 80 urte bete diren honetan berari begira jarri gaitu berriz. Bere sorlekuan, Ereñotzu auzoan (Hernani), herritarren artean aztertu dugu orduko eta gaurko bertsoa bizitzeko modua. Zer bertso eremu lantzen ditugu egun?



Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

Txirritaren garaian eta erabat euskaraz bizi ziren auzoan, bizitzako esparru "denetan" egiten zela bertsoan atera deza-kegu ondorioa, iritsi zaizkigu bertso eta pasarteetan oinarrituta: etxean, lanean, tabernan, festetako plazako saioan, bizitzako une garrantzitsuenetan... Etxean gizon zein emakumeak aritzen ziren bertsoan, elkarrekin. Horrela kontatu zuen Antonio Zubiarrainek (*Txirritarekin* kantuan aritu izandako *Paulo Txikiaren* anaiak): "Aitona (Joxe Miel Otxotorena) bertsolari ederra zen. Amonak ere (Joakina Etxeberria) bertsoan ederki egiten zuen. Gu zortzi senide ginen, sei anaia eta bi arreba. Gehientsuenok egiten genuen bertsoan, arreba gazteenak ere ederki egiten zuen! Bazkalondoan eta afalondoan jarduten ginen bertsoan; gehiena arto zuritzen!". Lanean ere gizonak eta emakumeak bertsoan elkarrekin aritzen zirela dakigu. Horren lekuko dira arto-zuriketaren aipamen hau eta baita *Txirritak* belarretan ari zen

Plazida Otañori botatako bertsoa eta honen emandako erantzuna. Tabernara eta festetako plazako saiora gizonak bakarrik zuten sarbidea. Emakumeen aisialdi eremuak zein ziren eta han zer bertso bota zituzten arakatzea falta da. Auzoan ikertzen eta festa berreskuratzen diharduten "atsolorra!" aipatu dute, berehala.

Bertsotan ikasteaz, naturaltasunez

Etxean ikasiko zuten bertsoan askok, garai hartan auzoan hainbat familia bazi- ren bertsoan egiten zutenak: aipatutako zubiarraindarrak, saiburutarrak, ugaldetarrak... Beste askok auzoan ikasiko zuten bertsoan, etxea eta auzoa gaur baino lotuago zeuden garaian. *Txirritak* sano sano hitz egiten zuen "profesore" funtzioaz, bertsoan egitea jainkoazko dohainekin lotu behar izan gabe. Egungo bertso eskole- tatik oso hurbil daude bere hitzak: "Joxe Miel Otxotorena zen nire profesorea, eta nik profesore egingo dut orain Paulo Zubiarrainena!" (Joxe Miel Otxotorenaren bilobarena, alegia, mesedea itzultzeko). Antonio Zavalak idatzita utzi zuenez, *Txirritaren* garaian, Txabolategi bertsola- riaren jaiotetxean, Domingo Erroizenea etxeko-jauna bizi zen. "Bertsotan zer edo zer aritzen zena omen zen, eta *Txirritak*, artean zortzi edo bederatzi urteko muti- koak, honela esaten omen zion:

– Niri bertsoan irakatsi behar didazu, Domingo".

Etxea, lana, aisia, denak lotuago

Etxea eta lana bereiztea ezinezko da (egun, batez ere, emakumeen kasuan eta *Txirritaren* garaian, gizon-emaku- meentzat). Lanean ere bertsoan aritzen ziren, jarduera eramangarriago egiteko, eta besterentzat lanean ari zirenean, lan baldintzak hobetzeko edo lanari ihes egiteko. Horretan *Txirrita* artista zela irakatsi digute aurrekoek. Iritsi zaizki- gu hargin koadrilla egun bateko lanetik libratu zituen bertsoak, egun luzetan la- nera azaldu gabe egon ostean nagusiar- i kantatu zizkionak...

Bertso espektakulua urtean 11 aldiz

Herriko festetan gozatzen zuten entzuleek balkoitik balkoirako bertso ikuskizunare- kin. Baina hainbat lekutan, egun osoan eta baita bizpahiru egunetan ere aritzen ziren bertsolariak. Kotxerik ezaren ezaugarriak, behin haraino joanda, bidaiari probetxu ateratzen ziotela denek. Florian Oiarbidek hala jaso zuen aurrekoengandik: "*Txirri- tak* urtean 11 plaza egiten omen zituen, zeukan famarekin!". Artikuluan aipatuta- ko Paulo Zubiarrainek idatzita utzi zituen egin zituen saioak. Gaztetan hasi eta 64 urtera arte plazaz plaza asko ibilita, 111 saio egin zituen, denera. Egun gehien da- biltzan pare bat bertsolarik urtean egi- ten dituzte 100 saio, eta urtean 70-80 saio egiten dituztenak dozena bat izango dira. *Txirritaren* garaian bertsolari han- diek etxean, lanean, tabernan, ia egunero kantatzea normala, eta egungo bertsolari handiek ia egunero plazako saio bat egin- da gainerako eremuetarako aseta egotea, ulertzekoa. Plazako eremua eta eskolakoa zorroztu ditugu 80 urteotan, eta etxekoa, lanekoa, aisialdikoa kamustu.

Bizimodu aldaketak isildu du bertsoa

Ereñozu auzoak bertsozaleen etako bat izaten jarraitzen du, kanpotik doanaren- tzat. Bertsotan ikasi eta egiteko bertso eskolara joatea beharrezkoa ez den ere- mu bat, etxeko transmisioa eta auzokoa lantzea oso posible dena. Ez dute beren errealitatearen pertzepzio bera bertak- oek. "Etxean elkarrekin kontu konta- ri zenbat egoten gara, bada?". "Kotxean goazenean, irratia edo musika jarrita". "Sagardotegira ere orduari begira eta joateko presaz etortzen zaigu orain jen- dea". Bertsotan egiteko, elkarrekin luze egon behar dela, beste tempo bat behar dela atera da ondorioa. Hitzari denbora eta leku gutxiago ematen diogula gaurko bizimoduan, eta berarekin batera, ber- tsoari. Bertsolaritza sustatu nahi due- nak lantzeko gai politak dira bizitzako esparruak, aurrez aurreko harremanak, denborak, hitzaren eremuak... ■

HAMABORTZ GAZTE

"Zahar batentzat hamabortz gazte, heldu direla ondotik".

Mundutik partitu gabe, kontsolamendu hori zeukan Mattin Treku zenak, eta bere sortegunaren ehungarren urtemuga ospatzen dugun honetan, bere ametsak aitzina jarraitzen duela jakin beza.



Xan Alkhat

Ez zukeen orduan pentsatzen sekulan Iparraldean txapelketa bat antolatuko zenik. Ez zuen menturaz pentsatuko ere emazteak arituko zirenik kantuan eta gehiengoan ere saio batean. Ez zuen pentsatuko zazpi saio eta ehunka jende bilduko zirenik bertsoen entzuteko. Ez, amets bakarra zuen bertsoak luzaz iraunen zuela hemen eta zinez gazteek beraien erreleboa hartuko zutela. Alde horretatik, ez zen tronpatu.

Ez zuen Mattin zenak gogoan txapelketa, ez baitzen txapelketa gizona Mattin. Plaza gizona zen Treku jauna. Pentsatzekoa da, beraz, bertso hori kantatu zuenean, bertsulariak geroan izanen zirenaz gain, plazak ere beti beteak izanen zirela pentsatzen zuela, orduan, bertso saioak beste zerbaitez baitziren. Jendea plazetan eta herriko bestetan biltzen zen bertsolarien entzuteko. Bertsolariak sekulako arrakasta bazuten orduan eta anitz deituak ziren. Beste garai bat zen. Gaur egun, herri bakan batzuetan soilik antolatzen dira bertso saioak bestetan, Iparralde honetan diot, bistan dena. Ez da aspaldian horrela antolatzeak ohiturarik eta hein batean galdu egin dela erran dezakegu. Pena da, baina sinetsi behar da gauzak aldatuko direla.

Xilabaz: zenbat buru...

Entzun, entzuten eta entzuten dira kritikak Xilabari buruz eta argi utzi nahi dut bakoitzak bere iritzia emateko eskubidea duela. Negatiboak edo positiboak, kritikek bederen gogoeta zerbaitez pizten dutelakoan beti.

Txapelketa egin behar dea? Hamabost bertsolari, aski dea? Gaiak aski ongi direa? Aurkezleak ontsa ari direa? Epai-lek lan ona egiten dutea? Milaka galdera egin ditzakegu baina zerbaitez segur naiz, ontsa ala gaizki eginik ere, Xilaba txapelketan urrunetik edo hurbiletik beren laguntza ekartzen duen orok, borondate handiz egiten duela. Borondate, maitasun eta sineste handiz.

Bakoitzak sinesten du gure hizkuntzaren alde joatea dela bertsolari txapelketaren antolatzea eta herri txiki bakoitzean ukan dugun elkartasun eta laguntza kartsuak horren froga nagusiak dira. Izan kostaldean, barnealdean, denetan harrera eta jarrera bikainak jaso ditu.

Hasiera ederra

Donibane Lohitzunen hasi zen aurtengo edizioa eta gogoan atxikitzeak izan zen, dudarik gabe, kanporaketetatik ari zen Amets Arzallusen ondoan, Kerman Diaz eta Nahia Sasco gazteak agertu zirela lehen aldikoz oholta gainean eta beren dohain handia erakutsi zutela. Lekukoa ez dute menturaz hain errazki utziko zaharrenek baina hasteko laguntza eman, emanen dute beti.

Muskildiko Posonpesenea gelan izan zen bigarren kanporaketaren hitzordua, urriko lehen egunean eta gelak ez zuen berotzeko denborarik galdu: burutik buru giro bikaina izan zen oholta gainean eta aitzinean, Aitor Servierren lehen agurretik, Ortzi Idoateren azken agurrerat, Battitt Crouspeyrena ere ahortzi gabe.

Baigorri zen hirugarren habia Xilabarentzat eta zer habia! Lehen finalerdi

honetan, Plaza Xoko gelak beroturik, maila handiko saioa eskaini zuten sei bertsolariak. Sustrai Colina eta Odei Barroso sartu ziren orduan txapelketan eta Egoitz Zelaia aitzina segitu.

Isturitzeko harpeetatik hurbil kokatu zen bigarren finalerdia. Arberuako jendea bertsozalea dela frogatua izan zen dudatzen zutenei. Tentsio doi bat nabari zen orduan, auzo herrikoa den Ramuntxo Christyk sorturik beharbada.

Ondoko asteburuan berriz, Aiziritzen, txapelketan kasik sekulan gertatu ez dena bizi izan genuen. Sei bertsolarietan, lau emazte kantari: Maddi Sarasua, Maddalen Arzallus, Nahia Sasco eta Miren Artetxe. Azken honek gogoan hartu zituen bere lehen agurrean garaian bertso kantari aritu ziren emazteak.

Azkenik, Larresoron bukatu ziren finalaurrekoak, herriko gela bete betean. Xumai Murua eta Eneritz Zabaletaren artean jokatu zen orduan finaleko azken txartela eta Xumairen alde izan zen aldi honetan.

Hara beraz, hamabortz ziren hastapenean eta sei baizik ez dira gelditzen: Sustrai, Amets, Odei, Miren, Maddalen eta Xumai.

Hamabortz gazte aritu dira kantuan aurtengo Xilaban, Xiberua, Lapurdi eta Baxenafarreko bertsolari txapelketan. Hamabortz gazte sinetsi dute Xilabaren funtzioan, erran nahi baita bertsoari eta beraz euskarari merezi duen lekua eskaintzea Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetan. Donibane Lohitzunen hasirik, Muskildin, Baigorri, Isturitzen, Aiziritzen, Larresoron eta heldu den azaroaren 12an Baionan ibilia izanen da aurtengo Xilaba. Zazpi saio, ehunka entzule, hamarnaka epaile, gai egile, gai emaile, bertsolari eta laguntzaile bilduak izanen ditu V. edizio honek eta horretarako baizik ez bada ere, merezi izan du.

Nork daki, beharbada kantatzen ahalko dugu: "Gazte batentzat hamabortz gazte, heldu direla ondotik". ■

Xilaba

XIBEROA, LAPURDI ETA BAXENABARREKO

BERTSULARI
XAPELKETA

2016

www.bertsozale.eus/xilaba

FINALA

BAIONA

Lauga gelan
Azaroaren 12an,
17:00etan

Aurkezlea:
Joana Itzaina



Amets
Arzallus



Maddalen
Arzallus



Miren
Artetxe



Odei
Barroso



Sustrai
Colina



Xumai
Murua

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Hegoak astinduz



Igor Estankona



Antologia

STEPHANE MALLARME

Itzultzailea: Josu Landa
Susa, 2016

Stephane Mallarmek (Paris, 1842–Valvins, 1898) ezinezko ahapaldia, ezinezko liburua, iristerik ez zegoen obra idatzi zuen. Orain Josu Landak itzuli du inposibilitate hori guztia, edo hobe, haren lagin bat, perfektu gertu egon den poetaren ahotsa gerturatu. Ekarri ere errimarekin ekarri du gainera, Munduko Poesia Kaieretarako Miguel Hernandez itzuli zuen modu-moduan. Emaizta ederra otu zaigu: “Nornahi bakar estiran/ zisne eta kai ezean/ zaharkituaren miran/ nire so ezerezean”.

Mallarme irakurriz ematen du irakurtzen ari garela denboraren dekantazioa hitzetan. Batzuetan eternitatearekin dago obsesionatua, Edgar Allan Poeren hilarriari kantatzen dionean legez, eta beste batzuetan harrapatu nahi luke momentu bat, tximeleta baten hegada labur-laburrean kabitutaz: “Lepo finez zisneak, gladiolo gorrikara,/ erbeste-ko arimen jainko erramu orria/ gori nola goiz-alba presatuen ikara/ serafinen behatza bezain hori-gorria”.

Mallarme obra gorenen poeta bat izan zen, hizkuntzaren ikertzaile, erritmoaren legeetan sinesten zuen klasiko handietako bat. Horregatik askotan daude bere poemak opera handietako agertokiaren legez kartoi-harrizko marko onirikoetan kokatuak, ortu santuetan, gauerdietan, saloietan ibiliko zara liburu honetan zehar. Eskapismoak daroa exotikora, ametsera: “Errubiez ereinda larrutzen duen duda/ zuzi babesle eta alaia-aren modura”.

Norberarengan hitz solteek sorrarazten duten oihartzuna da poemaren osotasuna bezain garrantzitsua. Misteriozko paisaietan

gertatzen diren gauza lausoak gure irudimena dira. Poeta ere desagertu egiten da kasik, eta hitz egiten dute unibertsoaren indar ezkutuek. Mallarmen poesia da ulertu baino gehiago dastatu egin behar den horietakoa, apurka-apurka harrapatzen zaituena eta esanahiaz harago eroan. Rimbaud da beste bat. Baudelaire ere bai. Poe. Korronte bat gaur egunera arte iritsi dena.

Tradizio horren haritik etorri ziren sinbolismoa eta are surrealismoa bera ere. Seinaleak ulertu ez arren ere, badago zer edo zer kilika eragiten dizuna: badakizu ez dela ari deskribatzen dituen gauzei buruz; gauzok unibertsoaren misterioei buruz hitz egiteko bitartekoa baino ez dira. Berrito asmatzen du poetak den oro. Ordutik ari gara besteok ere, konturatu barik, berrasmatzen Mallarme eta bere absolutua. ■

*Stephane Mallarme poeta frantziarra;
Paris, 1842– Valvins, 1898.*



» TELEGRAMA

Azaroaren 12an **Xilaba Bertsulari Xapelketaren Finala** jokatu dute Amets Arzallus, Maddalen Arzallus, Miren Artetxe, Odei Barroso, Sustrai Colina eta Xumai Murua bertsulariek Baionako Laugan; 17:00etan **STOP Rosa Cobo eta Ana Freixas** adituek genero indarkeriari buruzko hitzaldi bana eskainiko dute Iruñeko Katakarak aretoan azaroaren 17 eta 18an, ostegunez eta ostiralez, 19:00etan **STOP** Bilboko Azkuna Zentroan (Alhondiga) **Zinemateka zikloa zabalik dago** urriaren 19tik azaroaren 24ra bitarte: mende bateko gorputz-mugimenduari buruzko filmak ikusgai dira **STOP**

» KONTZERTUA

Magikoa



Montse Auzmendi

Bilbao Arte Portua zikloa

VLADIMIR SPIVAKOV
ETA MOSKOW VIRTUOSI

Egitaraua: Vivaldi, Rossini, Bocherini
eta Txaikovskiren obrak
Lekua: Euskalduna Jauregia.
Data: urriaren 23a

Bilbao Arte Portua zikloak kalitatearen aldeko apustu garbia egin du, zantzarik gabe. Halaxe frogatuta geratu zen bigarren emanaldian, non Vladimir Spivakovek eta Moscow Virtuosi, berak sortutako taldeak, txundituta utzi zituzten entzuleak. Alde negatiboan aipatu behar da, berriz ere, oso jende gutxi zegoela Euskalduna Jauregian, erdia baino gehiago hutsik baitzegoen. Pena ikaragarria, benetako zita berezia izan zelako. Antolatzaileek marketin estrategia aldatu beharko dute honi buelta emateko.

Goazen berriz musikara. Den-dena izan zen gustagarria. Bagenekien Moscow Virtuosi taldea fina, oso fina dela. Baina talde onak badaude han eta hemen. Kasu honek plus bat dute: haien arteko komunikazio eta konplizitate ederra. Nabaria da musikariak disfrutatu egiten dutela jotzen, eta entzuleek parte hartzen dute gozamen horretan. Bestalde, Spivakov maisuak badu zuzentzeko modu "emozionala" esango nukeena. Bere jestualtasuna ez da ohikoa, bere

keinuak ez dira betiko keinu teknikoak. Musikariak elkar ezagutzen dute eta zuzendariak keinu iradokitzaileak egiten ditu, besterik gabe.

Vivaldiren *Biolin concerto a mi minorrekoa*, RV 273 hasteko modu argitsua izan zen. Spivakov bakarlarri gisa aritu zen eta agerian utzi zituen bere soinu haragitsua eta adierazkortasun aparta. Rossiniren 3. *Sonata do maiorrekoa* gardena eta ñabarduraz beterikoa iritsi zitzaigun, eta Bocherini-ren 4. *Sinfonia re minorrekoa* -La casa del diavolo- gozoa entzun genuen.

Bigarren zatia benetako oparia izan zen. Beti atsegina egiten zaigu Txai-kovski-ren *Sokarako Serenade do maiorrekoa*, op. 48 famatua entzutea, baina Spivakoven bertsioa edertasunetik haratago doa. *Pezzo in forma de sonatina* lehenengo zatia, inongo gehiegikeriarik gabe, oso adierazkorra ateratzen. Bigarrena, *Tempo di valse*, kapritxoso eta sensuala. *Finale* txispadunak amaiera perfektua eman zion kontzertuari. Baina bereziki eskuzabala ageri zen Spivakov jauna. Lau propina distiratsu bota zituzten: Shostakovitxen bi pieza: *Re minorreko preludioa* eta *Polka*, taxuz; Brahms-en 5. *Dantza hungariarra* eta, azkenik, Astor Piazzolla-ren *Libertango ederra*, kontzertinoaren solo zirraragarri batekin. Bikain. ■



Vladimir Spivakov biolin jotzaile eta zuzendari errusiarra (Oufa, 1944), Moscow Virtuosi orkestrarekin bete-betean.

Hitz eta hots inprobisatuak

JAZZ MATINÉ

Igelaren Bandaren jazz eta Miren Amurizaren eta Beñat Gaztelumendiren bertsoak. Urriaren 30ean Bilboko Guggenheim Museoa egindako saioa, Bilbao 700 Fundazioak antolatzen duen *Jazz Matiné* zikloaren barruan.



Dabi Piedra

Igande eguerdi lasai eta eguzkitsu bat une aproposagoa izan daiteke kalean ibiltzeko jazzaren doinu sigi-sagatsuetan murgiltzeko baino. Guggenheim Museoko entzungelako iluntasunean batu ziren entzuleek, ordea, bazuten han egoteko arrazoi on bat. Inprobisazio bikoitza entzuteko aukera izan zuten: Igelaren Bandako musikarien jazz, batetik; bertsolarien errimak, bestetik.

Jazzaren eta bertsoaren arteko fusiorako aurreneko urratsa Igelaren Bandak egin zuen, *Debalde festa* diskoarekin. Bertsotarako doinu tradizionalak beren estilora ekarri zituzten Bixente Martinez gitarra joleak, Amaiur Cajaraville kontrabaxuak eta Asier Oleaga bateriak. Bilboko emanaldiari, hain zuzen, diskoko pieza batzuekin ekin zion hirukoteak.

Xarmangarria zira, Pello Joxepe, Antton eta Maria eta beste doinu ezagun batzuen interpretazio librea entzun ahal izan zuten bertaratutakoek. Perkusioak eta kontrabaxuak, jazzaren errit-



mora, ezusteko bide gorabeheratsuak arakatzen zituzten bitartean, Bixente Martinezen gitarrak markatzen zuen norabidea, edozein bertsozalerentzat ezagun-ezagunak diren notekin. Une magikoa izan zen, bertso-saioen ohiko girotik urrun, doinuek beste dimentsio bat hartu baitzuten.

Ariketarik zailena ondoren etorri zen, bertsolariak oholtzan zirela. Musika-riek bertsolarien esanekin inprobisatu behar izan zuten eta bertsolariak musikarien doinuetara egokitu. Josu Goikoe-txea gai-jartzailearen esanetara, Miren Amuriza eta Beñat Gaztelumendi aritu ziren. Asmoaren berri Gaztelumendik eman zuen agurrean: "Ea uztartzen ditugun, gutxika-gutxika / musikaren hitza ta, hitzaren musika".

Eta uztartu zituzten, bai, ondo uztartu ere. Entzungelako giro intimora egokitutako gaiek lagundu zuten horretan. Maitasunaz abestu zuten lehenengo, Igelaren Bandakoek jotako doinuak ira-

dokitzen zienaz ondoren. Bertsoaldirik biribilenak bakarkakoan entzun ziren. Beñat Gaztelumendi ezin dotoreago ibili zen, aita zahartua zaindu behar duen semearen larruan.

Igelaren Bandaren musika ez zen dekorazio hutsa izan. Bertsoetan azaleratutako sentimenduak areagotzen lagundu zuten jazzaren doinu malenkoniatsuek, batez ere, Gaztelumendiren txandan. Etorkizunera begira kantari jarri zutenean, Amurizaren gogoak ere errazago egin zuen hegan musikaren hegoekin.

Emanaldi atsegina ez ezik, berritzailea izan zen Bilbokoa. Bixente Martinezek aitortu zuen jazzaren eta bertsoaren arteko halako fusiorik aurretik egin gabea zela bera. Ordu eta erdi ziztu bizian pasa zen. Nahasketa ugari egin dira azkenaldian bertsoaren eta beste disziplina artistiko batzuen artean eta, oraingo hau, behintzat, balekoa izan zela esango dugu. ■

Gurutzegrama tematikoa

Gaia: Hegazti harrapariak



Ezker-eskuin:


1. Bereiz. Begi gaineko ile multzo. Zerbait eragozten duena. 2. Baltsamatzera behartu. Lekuak. 3. Naizen honek. Landetan kalte handiak egiten dituen intsektu. **Tamaina ertaineko eguneko harraparia, isats urkilatua duelako bereizten da. Haratustelez eta animalia ahulez elikatzen da.** 4. Lapurdiko udalerria. Masta. 5. Argiontzi, krisailu. 6. Eriak zaintzeaz arduratzen den pertsona. 7. Usadioak. **Sinbologiaz betetako hegazti hau sedentarioa eta monogamoa da; ez du inoiz uzten ez bere lurralde ez bere laguna, eta gainera, bere bikotekideari hil arterainoko fideltasuna adierazten dio.** 8. Marihuana. Ur animalia. 9. Lanabes. Hegazkin. Juduen idazki kanonikoen bilduma. 10. Nauka. Aurrez, aurretik. Ustekabeko esaldi edo erantzun.

Goitik behera:

1. Ibaietako pasabide. Nuen. 2. Atzizki toponimikoa. **Heriotzaren iragarle den hegazti sarraskijale hau eskualde menditsueta bizi da eta haize-korronteak erabiliz egiten du hegan. Tamaina handiko hegaztia da.** 3. Aluminioa. Luze, goi. 4. Kontsonante bikoitza. Joan den urtea. 5. Einsteinioa. Arrantza egiteko tresna. 6. Mendebaldean, zen. Irabazia. 7. Mineral mota. 8. Bitxi, arraro. 9. Erbioa. Neptunioa. 10. Zur preziatua. 11. **Basorako jaioa da hegazti hau; bere lumajea, beraz, basoan kamuflatzeko diseinaturiko jantzia da, arre-grisaxka bizkarrean, sabelaldean zuria eta lerro beltzez hornitua.** Adia, auhena. 12. Hiru. Gorbeaiako landa. 13. Barrez. 14. Nafarroa Behereko udalerria. 15. Gizonezko senitarte. 16. Atomo kargatu. 17. Landa, salbu. Alproja. 18. Borragoma. Ez eme. 19. Ogidun. Seigarren musika nota. 20. ...-zart, kolpearen onomatopeia. Mililitro. 21. Xumea, xehea. Dauka (alderantziz). 22. Ekaitze dagoenaldi.

Betegrama


Taulan hutsik agertzen diren laukiak osatu zeharretara eta goitik behera, hitz guztiak irakurri ahal izateko.




5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Gorantz zuzen.
2. Ubeldura.
3. Gizonezkoetan, ahotsik altuena.
4. Anai-arrebaren semea edo alaba.
5. Itxurak.



Ebazpenak



5x5:
1. Zutik
2. Ubela
3. Tenor
4. Iloba
5. Karak

22. Ekaizaldi!
18. Goma, Ar 19, Okin, La 20, Zirt, MI 21, Laua, Ud.
13. Iriz 14. Zaro. 15. Añala. 16. Ioi. 17. Añ. Umanate.
9. Er Np. 10. Kaoba 11. Aztoresa, Ar 12. III. Arraba.
4. Ir Iz 5. Es, Añua. 6. Zan, Lukunr. 7. Mika. 8. Bakan.
Goth' behera: 1. Ibi, Neukan. 2. Za, Sata. 3. Al, Altu.
Aurreñaz, Ateraldi.
8. Klamu, Arrain. 9. Altuz, Abio!, Talmud. 10. Nau,
Tantel. 5. Lanpara. 6. Erizain. 7. Usaiak, Arranoa.
2. Baitsumarazi, Tokiak. 3. Niy Ot, Mirua. 4. Kanbo,
Erker-eksum: 1. Izatez, Bekam, Eragoze.

Montserrat Carulla. Kataluniaren amatxia



Frankismoaren urterik gogorrenetan eman zituen lehen urratsak antzerkigintzan Montserrat Carulla eskarmentudun “aktore, katalan eta independentistak” (1930, Bartzelona). Gaur egun, 86 urte bete berri, erretiroan pentsatzetik urruti, argi du memoria galtzen ez duen bitartean agertokietan izango duela bigarren etxea.

“Antzerkiari esker ireki zitzaizkidan, emakume gisa, munduaren ateak”



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JORDI BORRÁS

Ausardia

“Nire herriaren maitale amorratua izanik ohore handia da herritarrek Kataluniako amatxia ezizena ematea. Zintzoki, nahiago dut ezizen hori antzerkigintza katalanaren damarena baino. Damak iraungitako gizartearen parte dira, zaharmindutako burokratzian hazi eta hezitako emakumeak, eta niri ez zaizkit gustatzen; emakume borrokalaria eta langilea izan naiz, bizirauteko borrokatu zuen familia proletario bateko alaba. Ausardia izan da gakoa. Horrek ahalbidetu dit emakume gisa askatasunean bizitzea”.

Antzerkigintzan lehen urratsak frankismoaren erdian, 40ko hamarkadan eman zenituen. Nola hasi zen dena?

Txikia nintzela ama zenarekin joan nintzen Betty Boopen pelikula bat ikustera eta etxera itzuli nintzenean imitatu nuen lehen aldiz. Ama zenak ongi egiten nuela esan zidan eta nik sinetsi. Gero, antzerkigintzan eman nituen nire lehen urratsak, Gabonetan Katalunian ohikoak diren Pastorets antzezpenetan, zehazki.

Kulturara sarbidea orduan ez zen hala moduzkoa. Nola gogoratzen duzu garai hura?

Gabezia asko eta gose handia pasatu genuen... Nire aita kontzentrazio esparru batean egon zen lehendabizi eta Model presondegian gero, nire amak seme-alabak aurrera ateratzeko suertatzen zen aukera orotan lan egiten zuen bitartean.

Testuinguru horretan, lortu zenuen antzerkigintza ikasketak hasia.

Ikasketak egin ahal izateko lanean aritu nintzen lurrin denda batean, lehenik,

eta farmazia eskolan gero. Antzerkigintza maite nuen eta Institut del Teatre-n izena ematea erabaki nuen, nire amari txiki dirua lortzeko eman zizkidan urrezko belarritakoak saldu ondoren. Han eman nituen nire lehendabiziko urratsak profesionalki. Egia esan, antzerkiari esker ireki zitzaizkidan emakume gisa munduaren ateak, emakume izatea arazoa zen sasoi hartan.

Estreinaldia egin zenuenetik 70 urte igaro diren arren agertokietan jarraitzen duzu. Erretiratzeko asmorik baduzu?

Duela urtebete erabaki nuen antzerkia uztea. Antzerkia egiteko memoria eta burua behar bezala izan behar dituzu. Eta iritsi zen une bat non ikusi nuen zuzeneko orok dakarren segurtasun faltak nire lanean eragiten zuela. Orduz geroztik telebistarako lanak egiten ditut bakarrik, hori bai, memoriak laguntzen didan bitartean lanean jarraituko dut.

Uste duzu adineko emakumeek ez dutuzela nahikoa aitorpenik?

Emakumeok orokorrean ez dugu erre-



"Beti esan izan dut ez dudala hil nahi Katalunia independentea ezagutu gabe. Baina ez didate erraz jartzen. Osasuntsu nago eta erresistentziarik ez zait falta, baina urteak badoaz... Hala ere ez dut Katalunia askea ezagutzeko itxaropena galtzen".

konozimendurik. Emakume askok bezala nik ere askotan sartu dut hanka, gauza onak eta txarrak egin ditut. Aurrrera egiteko borrokatu dut, batez ere, egindakoaz harro. Garrantzitsuena baita gauean ohera heldu, burua bururdian jarri eta lasai bizitzea.

60ko hamarkadan, inor banantzen ez zenean, dibortziatu egin zinen.

Gizarteak ezkontza hausteaz izan zuen erantzunaz harago profesionalki ere eragin zidan. Nire senar ohia TVE telebista kateko zuzendariaren laguna zen, eta banandu ginenean ni ez kontratatzeko agindua eman zuen. Gogorra izan zen, ordurako nik lau seme-alaba nituelako eta antzerkitik kanpoko lanak egiten hasi nintzen. Zorionez gerora beste lagun baten bitartez agindua altxatu zuten eta lana berreskuratu ahal izan nuen.

Adinak beldurtzen zaitu?

Inolaz ere ez. Askotan galdetzen didate zein den bizitzako adinik hoberena, eta zorionez, ezin dut erantzun, guztiak izan baitira paregabeak. Noski, gauza onak eta txarrak bizi izan ditut, baina harro nago nire bizitzaren gidoian egin dudana antzeppen oroz.

Sant Jordi gurutzea, Generalitataren urrezko domina eta Gaudí d'Honor sariak jaso dituzu. Zein izan da garrantzitsuena zuretzat?

Denak. Agian, garrantzitsuena Gaudía izan zen, ez zelako erakundeen saria, ofizioko lagunaren aitortpena baizik. Baina sari horien gainetik dut jendeak, kalean, han eta hemen, erakusten didan estimua. Oso estimatua sentitzen naiz eta hori da ordainsaririk garrantzitsuena niretzat.

Solas egin dezagun politikaz. Nola bizi duzu Kataluniako prozesua?

Nahiko kezkatuta nago, goi ordokikoak gure kontra armatzen ari direlako beste behin. Ez dute etenik. Eta argi gelditu dadila ez naizela Espainiako biztanleez ari, baizik eta botereaz. Espainiako Gobernua bertako legeak, hizkuntza eta aginduak inposatu nahi ditu, eta ez du onartzen Katalunia nazioa dela eta nazio orok duela bere estatua izateko eskubidea. Bitartean, Katalunia odolusten ari da eta independentzia lortu arte ez du erabateko askatasuna izango.

Zuk ezagutuko al duzu Katalunia independentea?

[Barrez] Beti esan izan dut ez dudala hil nahi ezagutu gabe. Baina ez didate erraz jartzen. Osasuntsu nago eta erresistentziarik ez zait falta, baina urteak badoaz... Hala ere ez dut itxaropena galtzen. Tira, agian ez dut ezagutuko, baina zoriontsu joango naiz haziren bat edo beste utzi dudalako, behintzat. ■



Joseba Sarrionandia gaur egun, Habanan Beranduegik duen kolaboratzaile Bizi Zalegik eman dizkigun datuen arabera.

Sarrionandia Kuban zegoela zekitenek bazkari herrikoia antolatu dute BECen

Ettxepareren Habanako lektorea izango dela publiko egin ostean, Sarrionandia Kuban zegoela zekiten euskaldunek ospatu egingo dute aurrerantzean sekretua gordetzearen pisurik gabe bizi ahalko direla. BECen bazkaria antolatu dute horretarako eta dagoeneko 10.000 txartel saldu dira. Menua: 1. Platera: Hezurrezko

xirulak; 2. platera: kurloiak saltsan edo moro txuletak behe-laino artean. Postretarako: Lagun Izoztuen sorbetea. Zitroi ura izango da edateko. Bestalde, bazkaritik harago, sekretua ezagutzen zutenek klub bat antolatzeko asmoa dute, Superbat klubaren bazkide errekorra gainditzearen plazer hutsagatik.

Eskuina garaile Amerikako hauteskundeetan, my friends

37 hilabeteko hauteskunde kanpainaren ostean, estatubatuar batzuek gu guztion ~~borrera~~ patua gidatuko duen presidentea aukeratu dute, ow yeah. Inkestek aurreikusi zuten bezala, eskuineko hautagaia izan da irabazlea, eskumakoari oso alde txikia kenduta baina. Biengandik sano urruti ibili da alderdi neoliberala, bere etxean oso ezaguna den morroi batek ordezkaturia. Benetan interesatzen zaizuen datua, alegia, ekologistak eta ezkerrekoak ze distantziatara geratu diren, gustura emango genizueke, bai-



Lagunartean ospatu dituzte emaitzak Bilderberg erretegian.

na zoritxarrez gure teleskopioak ez du hainbesteko indarrik.

Alderdi guztiak pozik azaldu dira helburua bete dutelako: Etxe Zuritik beltza botatzea.

SAREAN ARRANTZATUA

Geldituko gaituenik ez da



Jan aurretik, kondoia jantzi



Kim Jong-Dub sound system



Santi Leoné #Zutik
@ororostorm

Musika uzten duelarik, nik etorkizun oparoa ikusten diot Ipar Koreako diktadore gisa
#MuguruzaEdoTxinPoTx




EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK

ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK



943 371545

HARPIDE@ARGIA.EUS

WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA



GRYPEA EZ DEZAZULA LAGUN IZAN JARRI TXERTOIA



URRIAREN 17TIK AURRERA GRYPEAREN KONTRAKO 2016KO TXERTAKETA KANPAINA

65 urtetik gora dituztenentzat, gaixotasun kronikoak dituztenentzat eta haurdun dauden emakumeentzat.



Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD